

Europako estandarretarantz, enplegu-kalitatean: Euskal AEren kasua

Egileak: Jesús R. Marcos, Elena Goni
Bilbaon, 2003ko azaroaren 13tik 15era egindako Enpleguaren Azokan aurkeztutako
ponentzia.

AURKIBIDEA

Sarrera	7
1. Enplegu-kalitatearen testuingurua eta osagaiak	9
2. Enplegu-kalitatearen adierazleen sistemarantz	12
3. Lan-merkatua: sarbidea eta geratzea	15
3.1. Emakumeen lan-merkaturako sarbide ezberdina	15
3.2. Adinaren arabera lan-merkatutik irtetea	20
3.3. Lan-merkatuan geratzea eta lan-merkatuko aldaketak: fluxien ikerketa	22
3.4. Kontratuen behin-behinekotasuna	27
4. Lana eta familia bateratzea	28
4.1. Lanaldi malgua	28
4.2. Amatasuna eta enplegua	31
5. Langileen eta lanpostuaren ezaugarriak	33
5.1. Giza baliabideen prestakuntza-maila	33
5.2. Enpleguaren berezko kalitatea	37
5.3. Zerbitzuen sektoreko borroka	40
6. Lanpostuaren ingurunea	42
6.1. Lan-istripuak Segurtasunik eza	42
6.2. Enpleguaren gizarte-babesa	44
6.3. Enplegatuen eta enplegatzailen arteko harremanak: gizarte-elkarritzeta	46
7. Produkzioa eta produktibitatea	49
7.1. Europar Batasuneko hazkunde ekonomikoa. Inflexio-puntua	50
7.2. Laneko produktibitatearen bilakaera	51
Ondorioak	55

GRAFIKOAK

0. grafikoa. EBko eta Euskal AEko 15 eta 64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa (2002). 2005erako eta 2010erako Lisboako helburuak. %	8
1. grafikoa. Europako Gizarte Eredu berriaren ardatzak	10
2. grafikoa. Enplegu-kalitatearen osagaiak	13
3. grafikoa. Enplegu-kalitatearen ardatzak eta dimentsioak	14
4. grafikoa. 16 eta 64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1994-1998-2002. %	15
5. grafikoa. 16 eta 64 urte bitarteko emakumeen eta gizonen enplegu-tasen arteko aldearen bilakaera. Euskal AE. 1994-2002. Urteko batez bestekoak. Ehuneko-puntuak	16
6. grafikoa. 15 eta 64 urte bitarteko emakumeen eta gizonen enplegu-tasaren aldearen bilakaera, herrialdeen arabera. 1997-2001. Ehuneko-puntuak	17
7. grafikoa. 15 eta 64 urte bitarteko emakumeen eta gizonen langabezia-tasaren aldearen bilakaera, generoaren eta herrialdearen arabera. 1997-2001. Ehuneko-puntuak	18
8. grafikoa. Soldatako ezberdintasuna (hileko soldata), generoaren eta autonomia-erkidegoen arabera. Espainia=100. 2000	19
9. grafikoa. 55 eta 64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasen bilakaera, sexuaren arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1994-2002. %	20
10. grafikoa. 55 eta 64 urte bitarteko biztanleen enplegu-tasaren bilakaera, sexuaren eta herrialdeen arabera. 2001. %	21
11-A grafikoa. Okupazioaren, langabeziaren eta aktibotasun-ezaren arteko trantsizioa. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1997-1998. %	23
11-B grafikoa. Okupazioaren, langabeziaren eta aktibotasun-ezaren arteko trantsizioa. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 2001-2002. (%)	23
12. grafikoa. Okupazioaren, langabeziaren eta aktibotasun-ezaren arteko trantsizioa. Espainia. 1997-1998. %	23
13. grafikoa. Okupazioaren, langabeziaren eta aktibotasun-ezaren arteko trantsizioa. EB. 1997-1998. %	23

14-A grafikoa. Okupazioaren eta okupazio-ezaren arteko trantsizioa, kontratu-motaren arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1997-1998. %	25
14.-B grafikoa. Okupazioaren eta okupazio-ezaren arteko trantsizioa, kontratu-motaren arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 2001-2002. %	25
15. grafikoa. Okupazioaren eta okupazio-ezaren arteko trantsizioa, kontratu-motaren arabera. Espainia. 1997-1998. %	25
16. grafikoa. Okupazioaren eta okupazio-ezaren arteko trantsizioa, kontratu-motaren arabera. EB-15. 1997-1998. %	25
17. grafikoa. Aldi baterako kontratua duten 16 eta 64 urte bitartekoen okupazio-tasen bilakaera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1994-2002. %	27
18. grafikoa. Aldi baterako kontratua duten 15 eta 64 urte bitartekoen okupazio-tasen bilakaera, herrialdeen arabera. 1998-2001. %	28
19. grafikoa. 16 urte eta gehiagoko landunek astean lan egindako orduen bilakaera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1998-2002. %	29
20. grafikoa. Astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten 16 urte eta gehiagoko landunak, sexuaren eta urtearen arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1998-2002. %	30
21. grafikoa. Lanaldi laburra duten 15 eta 64 urte bitartekoen okupazio-tasen bilakaera, herrialdeen arabera. 1998-2001. %	30
22. grafikoa. Enpleguan generoek duten aldearen bilakaera, amatasunaren eta herrialdeen arabera. 1998-2001	32
23. grafikoa. 25 eta 64 urte bitarteko biztanle landunen eskolatzeko-mailaren arabeko ratioaren bilakaera, Euskal AEko eskolatzeko-mailaren arabera 25 eta 64 urte bitarteko biztanle landun guztiekin alderatuta. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1998-2002. %	34
24. grafikoa. 25 urtetik 64ra bitarteko instrukzio-mailaren arabeko biztanleria landunaren ratioa, 25 urtetik 64ra bitarteko instrukzio-mailaren arabeko guztizko biztanleriaren aldean, herrialdeka. %	35
25. grafikoa. Azken 12 hilabeteetan ikasketa osagarriak egin dituzten biztanle landunen bilakaera. 2001-2002. %	36

26. grafikoa. Azken 12 hilabeteetan ikasketa osagarriak egin dituen 25 eta 64 urte bitarteko biztanleria, herrialdeen arabera. 2000-2001. %	36
27. grafikoa. 16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, egiten duten lanarekiko gogobetetasunaren batez besteko mailaren arabera eta autonomia-erkidegoen arabera. 2002. %	37
28. grafikoa. 16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, egiten duten lanaren erakargarritasunaren eta interesaren batez besteko mailaren arabera eta autonomia-erkidegoen arabera. 2002	38
29. grafikoa. 16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, lanarekiko estresaren batez besteko mailaren arabera eta autonomia-erkidegoen arabera. 2002	39
30. grafikoa. Zerbitzuetan lan egiten duten eta 16 urte edo gehiago duten landunak, autonomia-erkidegoetako landun guztiekin alderatuta. 2001-IV. hiruhilekoa. %	40
31. grafikoa. Zerbitzuen sektorean lanean dabilen 15 eta 64 urte bitarteko biztanleen bilakaera, herrialdeen arabera eta 15 eta 54 urte bitarteko biztanleria guztiarekin alderatuta. 1997-2001 %	41
32. grafikoa. 16 eta 64 urte bitarteko biztanle landunek izaten dituzten lan-istripuen proportzioaren bilakaera. 1996-2002. Euskal AE. %	42
33. grafikoa. 100.000 landuneko istripu-tasa, herrialdeen arabera. EB-15. 1994-1999. Euskal AE. 1996-1999	43
34. grafikoa. 16 eta 64 urte bitarteko biztanle landunek izaten dituzten gaixotasun profesionalen proportzioaren bilakaera. 1996-2002. Euskal AE. 0/00	44
35. grafikoa. Langabezia jasotzen duten onuradunen guztizkoaren bilakaera, 25 eta 64 urte bitarteko langabeen guztizkoarekin alderatuta. Euskal AE. 1994-2001. %	45
36. grafikoa. 25 eta 64 urte bitarteko langabeen arteko langabezia-prestazioaren onuradunen proportzioa, sexuaren arabera. Euskal AE=Guztizkoa. 1993. %	45
37. grafikoa. 6 eta 64 urte bitarteko landunen hitzarmen kolektiboen estaldura-tasen bilakaera. Euskal AE. 1996-2001. %	46
38. grafikoa. Hitzarmen kolektiboen estaldura-tasak, herrialdeka. 2001. %	47

39. grafikoa. Langile bakoitzeko huelgengatik galdutako egunen batez bestekoaren bilakaera, 16 eta 64 urte bitarteko biztanle landunetan. EB-15. 1994-1996. Euskal AE. 1996-2001. Batez bestekoa	48
40. grafikoa. Huelgengatik galdutako lanegunen bilakaera. Euskal AE. 1996-2001	48
41. grafikoa. 16 eta 64 urte bitarteko biztanleen arteko landunek huelgetan parte-hartzearen tasaren bilakaera. Euskal AE. 1996-2001. %	49
42. grafikoa. BPG errelaren urteko hazkundearen ehunekoen bilakaera, herrialdearen arabera. 1997-2002. %	50
43. grafikoa. Langileak urteko lan egindako orduen batez bestekoaren aldaketen bilakaera, herrialdeen arabera. 1996-2000. %	51
44. grafikoa. Urtean lan egindako orduetako produktibitatearen aldakuntzen bilakaera, herrialdeen arabera. 1996-2001. %	52
45. grafikoa. Pertsona bakoitzak lan egindako orduetako produktibitatearen aldakuntzen bilakaera, herrialdeen arabera. 1996-2001. %	53

TAULAK

1. taula. 20 eta 50 urte bitarteko biztanlean familiaguneetan (lehenak), 7 urte baino gutxiagoko umeak dituzten ala ez sailkatuta, sexuaren arabera eta jarduerarekin duten loturaren arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 2002	31
--	----

Sarrera

Enplegu-kalitateari buruzko lanak aztertu nahi izanez gero, denboran eta espazioan ez dugu zertan oso atzera jo behar: 1997ko azaroan, Europako Kontseiluaren ohiz kanpoko bilera bat egin zuten Luxenburgon. Kontseilu horretan, Europako Enplegu Estrategia egiteko oinarritzko ildoak finkatu zituzten.

Hurrengo urratsa, ezagunena, Lisboako Europar Kontseiluan egin zuten 2000ko martxoan. Hor beste Gizarte Politikako Agenda bat egiteko beharra sortu zen. Prestakuntzari eta hezkuntzari buruzko beste helburu handiago batzuez gain (prestakuntza etengabea bultzatzea, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietarako (IKT) sarbidea eta horien gaineko trebakuntza, gizarte-bazterkeria murriztea...), enplegu osoa lortzearen oinarritzko helburua zehaztu zuten.

Helburu hori betetzeko, 2005ean % 67ko okupazio-tasa eta 2010ean % 70koa lortu behar ziren. Emakumeen okupazio-tasek % 57koa eta % 60koa izan behar zuten hurrenez hurren. Era paraleloan, Europar Batasuneko langabezia % 14raino jaitsi behar zen.


Helburu horiek ekonomiaren arloan egondako optimismo garaian kokatu behar ditugu. Izan ere, Europako ekonomietan igoera-ziklo bat egon zen enplegu-sorrera handia zela eta. Ziklo horrek 90eko hamarkadako azken urteetaraino iraun zuen, eta horren ondorioz sortu ziren aipatutako helburuok.

Egoera on horrek, ordea, ez zuen Europako Lan Merkatuko gabeziak ez ikustea ekarri. Aitzitik, Estatu Batuetako egoerarekin alderatuta, ezberdintasun nabarmenenak definitu zituzten:

- Okupazioaren ezberdintasuna: 1997an, EBn % 60ko okupazio-tasa zegoen; Estatu Batuetan, aldiz, % 75koa.
- Zerbitzuen ezberdintasuna: % 40koa zen EBn, eta % 55koa Estatu Batuetan.
- Generoaren ezberdintasuna: EBn emakumeen erdiak egiten du lan; Estatu Batuetan, bi herenak.
- Adinaren ezberdintasuna: 55 eta 64 urte bitartekoen enplegu-tasa txikia (1999an, EBn % 36ko enplegu-tasa zegoen eta Estatu Batuetan % 57koa).
- Langabezia estrukturalaren iraupen luzea: epe luzeko langabeen erdiak urtebete baino gehiago darama lanik egin gabe.
- Espezializazioaren ezberdintasuna: EBko merkatuan eskatzen diren lan-mota guztiak ez dira betetzen.
- Enpleguaren espazioaren ezberdintasuna.

- European, batez ere Ekialdeko Alemanian, Frantzian, Italiako hegoaldean, Espainian eta Grezian¹ izaten da lanik eza.

0. grafikoa. EBko eta Euskal AEko 15 eta 64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa (2002). 2005erako eta 2010erako Lisboako helburuak. %



Iturria: Eurostat, Labour Force Survey. Eustat. BJA

Ikusten denez, 2005erako proposatutako helburutik urruti dagoen herrialdeen multzoan gaude: Europako batez besteko okupazio-tasatik 1,6 ehuneko-puntura gauden arren, oraindik ere beste 4,4 ehuneko-puntu geratzen dira denboran gertuenean dagoen helburu orokorrera iristeko.

Espainia batez bestekotik 6 puntura dago. Beraz, 8,8 ehuneko-puntu falta zaizkio. Greziarrak eta italiarrak are urrunago daude.

Lau herrialdek gainditu dute jada 2010erako helburua: Danimarkak, Herbehereek, Suediak eta Erresuma Batuak hain zuzen ere.

Bestalde, Finlandiak, Austriak eta Portugalek 2002an lortu zuten 2005erako helburua.

Ondorioz, honako diagnostikoa lortu da: EBk enplegurako ahalmen handia du, batez ere emakumeei eta zaharrei dagokionez, eta batez ere zerbitzuen sektorean.

¹ COMMUNICATION FROM THE COMMISSION TO THE COUNCIL, THE EUROPEAN PARLIAMENT, THE ECONOMIC AND SOCIAL COMMITTEE AND THE COMMITTEE OF THE REGIONS. Social Policy Agenda. BRUSSELS, 28.6.2000.COM (2000) AZKENA. 9-10 orria

Lisboako helburuak zein baldintzatan eta zer neurritan bete behar diren zehazteko, hurrengo hitzorduak Nizan eta Stockholmen izango dira.

Batez ere Europako Gizarte Eredua deritzona mantentzea eta horren garapena landuko dira. Beste herrialde batzuen aldean, eredu horren berezitasuna ez da gastua, baizik eta finantziazio-metodoa: Europan publikoa da batik bat, eta beste herrialde garatu batzuetan pribatuagoa da (batez ere Estatu Batuetan). Estatu Batuetan, Barne Produktu Gordinari dagokionez, pertsona bakoitzaren gastua Europan baino handiagoa da, eta biztanleen % 40k ez du osasun-sistema primarioan sartzerik.²

1. Enplegu-kalitatearen testuingurua eta osagaiak

Lisboako Kontseiluaren arabera, Europan egin beharreko aldaketek bideratuta egon behar dute. Hain zuzen ere, «enplegu gehiagorekin eta hobeagoekin nahiz gizarte-kohesio handiagoarekin hazkunde ekonomikoari eusteko gai den ekonomian oinarritutako munduko ekonomiarik lehiakorrena eta dinamikoena eraikitzea» bideratuta egon behar dute.³

Ekonomiako lehiakortasunean eta dinamismoan gauzatutako hazkunde ekonomikoaren helburuak ahaztu gabe, gizarte-kohesioa bilatzearen (gizarte-babesa gehituz edo hobetuz, gizarte-bazterkeria gutxituz, diskriminazioei aurre eginez edo oinarritzko eskubideak indartuz) eta enplegu-kalitatea nahiz enplegu osoa lortzera bideratutako politikaren arteko lotura ezarri da.


Gizarte-politikek eta enplegu-politikek prozesu ekonomikoetan *input* garrantzitsua osa dezaketela jotzen da. Ildo horretan ulertzen da Europako Gizarte Eredua modernizazioa. 1. grafikoan «Gizarte Politikako Agendaren triangelua» deritzona azaltzen da.

Helburu generikoa jada lema bihurtu den honako esaldiarekin identifikatzen da: «enplegu gehiago eta hobe». Orain arte, kalitatea ekoizpen prozesuekin lotzen zen batez ere. Bada, kalitatearen kontzeptua ekonomiaren eta gizartearen arloetara hedatu nahi da, ekonomiaren eta gizarte-politikaren arteko harremanak hobetzearen.

2 COMMUNICATION FROM THE COMMISSION TO THE COUNCIL, THE EUROPEAN PARLIAMENT, THE ECONOMIC AND SOCIAL COMMITTEE AND THE COMMITTEE OF THE REGIONS. Employment and social policies: a framework for investing in quality. BRUSELA, 2001.6.20. COM(2000) 379 FINAL. 5. orria.
http://europa.eu.int/comm/employment_social/news/2001/sep/quality_en.pdf[2003-10-25]

3 COM(2000) 379 FINAL. 2. orria.

1. grafikoa. Europako Gizarte Eredu berriaren ardatzak



Ez da erraza enplegu-kalitatearen definizioa finkatzea. Izan ere, dimentsio askotako errealitate konplexua hartu behar da kontuan.

Ez dugu *lana* kontzeptua erabiliko, gaur egun kontzeptu zabalagoa baita: etxeke lana, gizarte-laguntzako lana, borondatezko lana... Oraingoz, lan-mota horiek lan-merkatutzat ulertzen dugun kontzeptutik kanpo gertatu dira.

Ikasketen munduan ez dago kontzeptu hori zehazten eta enplegu-kalitatea ikertzen laguntzen duen estandarrik, ez norabide batean ez bestean. Askotan, enpleguaren ezaugarrietara mugatzen da (lan-orduak, eskatutako gaitasunak, lanpostuaren definizioa); beste batzuetan, lanaren ingurunera mugatzen da (lan-baldintzak, trebakuntza, osasun-aseguruak...); eta, azkenik, beste batzuetan enplegua definitzeko ahalegina ideia subjektiboetara mugatzen da (lanak asebetetzen gaituen, lanpostuan integratuta gauden, lanetik zer espero dugun, antolakuntzarekin edo zuzendaritzarekin ados gauden...).

Hala ere, 2001eko martxoan Europar Batzordeak Stockholmen egin zuen Batzarrean, enplegu-kalitatea ulertzeko zortzi ideietako zerrenda finkatu zuten. Ideia horiek xehetasun guztiz bildu zituzten Batzordearentzako Komunikazioan, 2001eko ekainean (ikus 2. aipua).

Dokumentu horren helburua analisirako lan-esparru bat finkatzea da. Hasteko, *enplegu-kalitatea* definitzeko oinarritzko lau ideia kontuan izan behar ditugula adierazi dute:

- Lanpostuen ezaugarriak: lan-ingurunea eta lanpostuaren beraren ezaugarriak.

- Lanpostuan diharduten pertsonen berezitasunak.
- Lanpostuaren definizioaren eta langilearen gaitasunen arteko egokitzapena.
- Langileak bere lanpostuari buruz duen iritzia edo balioztatze subjektiboa: enpleguan gustura dagoen.⁴

Idea horiek zehaztu eta gero, enplegu-kalitatea sailkatzeko bi multzo handi bereizi dituzte: batetik, lanpostuaren ezaugarriak daude (langilea lanean gustura dagoen, soldata, lanean ematen den denbora...), eta, bestetik, lanpostuaren nahiz lan-merkatuko ingurune orokorra (genero-berdintasuna, lanerako sarbidea, elkarrizketa soziala...).

Idea handi horiekin eta proposatutako adierazleekin (helburu zehatzak planteatzeko eta balioztatzeko balio behar dute), Batzordearen dokumentuan enplegu-kalitatearen 10 arlo edo «10 elementu garrantzitsuenak» definitu dira.

Arlo horiek eta bete nahi diren helburu politikoak batera aurkeztu dira, aplikatu daitezkeen lege tresnekin batera (laneko jarraibideak, Europar Batzordearen politika ekonomikoaren jarraibideak...), eta gerta daitezkeen estatistika-adierazleekin batera.

Arlo horiek eta dimentsiotan banatutako helburu orokorrak honakoak dira:

I. dimentsioa: Lanpostuaren berezitasunak.

- 1) **Enpleguaren berezko kalitatea.** Lanek asebetetzeko modukoak izan behar dute berez. Era berean, pertsonen gaitasunekin bateragarriak izan behar dute eta diru-sarreraren maila egokia eskaini behar dute.
- 2) **Etengabeko prestakuntza, karrera profesionalaren bilakaera eta gaitasun pertsonalak.** Langileen gaitasunek aurrera egin behar dute, etengabeko prestakuntza bultzatuz.

II. dimentsioa: Lanpostuaren eta lan-merkatuaren ingurune orokorra.

- 3) **Genero-berdintasuna.** Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuna bultzatu behar da, bai soldatetan bai karrera profesionalek ematen dituzten aukeretan.
- 4) **Segurtasuna eta osasuna lanpostuan.** Segurtasunaren eta osasun fisikoaren nahiz psikikoaren ikuspuntutik, laneko baldintza egokiak bermatu behar dira.
- 5) **Enpleguko malgutasuna eta segurtasuna.** Beste Europako lan-merkatu bat eraiki behar da. Merkatu horretan, mugikortasun geografikorako eta profesionalerako aukerak egotea eta beren lana galtzen dutenei edo beste aukera batzuk bilatzen dituztenei lagundu behar zaie.
- 6) **Lan-merkatuan sartzea eta mantentzea.** Zailtasunak dituzten taldeak (gazteak, epe luzez langabezia daudenak...) lan-merkatuan sartu daitezkeen eta bertan iraun dezaten erraztu behar da.

4 COM(2000) 379 FINAL. 7. orria.

- 7) **Lana antolatzea eta bizitza pribatuarekiko oreka.** Lanaren erabilerek eta antolaketak (batez ere lanaren denborarekin lotura dutenak eta laguntzarako zerbitzuek) laneko bizitzaren eta lanetik kanpoko bizitzaren arteko oreka ekarri behar dute.
- 8) **Langileen gizarte-elkarrizketa eta parte-hartzea.** Langile guztiak informaturik egon behar dute beren enpresen garapenari nahiz beren laneko bizitzari eragiten dieten erabakietan parte-hartzeari dagokionez.
- 9) **Dibertsitatea eta diskriminaziorik ez.** Langile guztiei tratu bera eman behar zaie, beren adina, ezgaitasunak, jatorri etnikoa, erlijioa edo sexu orientazioa kontuan izan gabe.
- 10) **Produktibitatea eta bizi-maila.** Beharrezkoa da laneko produktibitatea igotzea eta Europar Batasuneko eskualde guztietako bizi-maila hobetzea.

Azken puntu horri dagokionez, beti ere «Lanaren kalitatea eta produktibitatea hobetzea» gaiaren jarraibideen baitan, 2003ko uztailaren 11ko Kontseiluaren Erabakian, kide diren Estatuaren enplegu-politiken jarraibideei buruzkoan, bi paragrafo daude gai horri buruz. Azken puntu hori, hain zuzen ere, paragrafo horietako bat da.

Honakoa esaten da hitzez hitz: «Enplegu-tasen igoerarekin batera laneko produktibitatea ere igo behar da. Laneko kalitatea lagungarria izan daiteke produktibitatea igotzeko. Beraz, elementu bi horien arteko lotura ahalik eta gehien aprobetxatu beharko litzateke. Hori gizarte-elkarrizketaren erronka berezi bat da.»⁵

Laekengo Goi-Bileran (2001eko abendua) jada arreta jarri zuten enplegu-kalitatearen eta produktibitatearen arteko loturan.

EBko herrialde nagusietako egoera ekonomikoa ezin da alderatu enplegu osoa eta kalitatezkoa gaiarekiko interesa piztu zenean zegoen egoerarekin. Horregatik, ziurrenik, gai hori kalitatearen inguruko arloetako eta adierazleetako zerrendetako azken tokietan azaltzen zen. Ondorioz, gaia nabarmendu beharra dago.

Esan denez, Batzordearen dokumentuan hiru adierazle proposatu dira arlo bakoitzeko. Arloen eta adierazleen proposamen horretatik abiatuta, enplegu-kalitatea aztertzen edo ikertzen diharduten erakunde ofizialek eta ez ofizialek beren adierazleen sailkapenak eta bildumak egin dituzte.

2. Enplegu-kalitatearen adierazleen sistemarantz

Ikerketa-eremu honetan bi iturri nabarmendu dira. Europako testuinguruan, Bizi eta Lan Baldintzak Sustatzeko Europako Fundazioa lan-baldintzei buruzko inkestak egiten ari da 1990eko hamarkadaren hasieratik. Erakunde horrek Batzordearen dokumentuetan azaldu diren adierazleak diseinatzen parte hartu zuen 2001ean.

5 2003ko uztailaren 11ko Kontseiluaren Erabakia, Europar Batasuneko kide diren Estatuetakoko enplegu-politiketarako arteztarauei buruzkoa. (2003/578/CE). Europar Batasuneko aldizkari ofiziala. 5.8.2003.L 197/17.


Denboran eta espazioan eremu hurbilago batean, ESADEk, lan-arloko ikerketen institutuak, egindako ahalegina nabarmendu behar da. Randstatek babesturik, «Lan-kalitateari buruzko RANDSTAD txostena» deritzona argitaratu zuen duela gutxi (2003ko ekaina). Txosten horretan, EBko 15 herrialdeetarako adierazle-zerrenda handi bat jaso dute, Espainia Europaren baitan kokatzeko ahaleginean.⁶

Azken kasu horretan, ez da enplegu-kalitatearen fenomenoaren ikuspegi sistematikoa planteatu. Aitzitik, Batzordeak 2001eko ekainean proposatutako sailkapenari jarraitzen dio: dimentsioak, ideiak (arloak deritzenak) eta adierazleak.

Bizi eta Lan Baldintzak Sustatzeko Europako Fundazioak adierazleen sistematizazioa aurkeztu du. Adierazleak talde homogeneoetan sailkatu ditu. Hala ere, nahiz eta azterlana gerokoagoa izan, ez dituzte Batzordearentzat oinarritzkoak diren dimentsio batzuk jaso: laneko diskriminazioari buruzko gaiak (sexua, sarbidea...) eta produktibitateari buruzkoak.

Elementu horiek oso lotura estua dute gizarte-politikekin. Beraz, lanpostuen analisiari buruz aritzeko, baliteke kalitatearen kontzeptuaren barruan ez daudela jotzea. Hala ere, zalantzarik gabe, gai horiek nahiz produktibitatearenak lotura handia dute eta enplegu-kalitatea dagoen edo ez dagoen ingurunea zehatz dezakete.

2. grafikoa. Enplegu-kalitatearen osagaiak




Iturria: Bizi eta Lan Baldintzak Sustatzeko Europako Fundazioa.⁷

Batetik, 2. grafikoa aurkeztutako eskemari falta zaizkion dimentsioak sartzeko, eta, bestetik, Batzordeak eta Randstad Txostenak emandako zerrenda erraztearren eta ordenatzearren, adierazle-mota talde koherenteak marraztu ditugu.

6 IEL, Lan Arloko Ikerketen Institutua. ESADE, 2003. Laneko kalitateari buruzko RANDSTAD txostena. http://www.randstad.es/documents/Prensa/Calidad_en_el_trabajo.pdf [2003-11-1]

7 European Foundation for the Improvement of Living and Working Conditions. Quality of work and employment in Europe. Issues and Challenges. Office for Official Publications of the European Communities. 2002.

3. grafikoa. Enplegu-kalitatearen ardatzak eta dimentsioak



Enplegu-kalitatearen kontzeptua, Europar Batzordeak ulertzen duen bezala, bi ardatz nagusietatik sortu da: batetik Lan Merkatuta/Produktibitatea ardatza, eta bestetik Lana/Familia ardatza.

Lehen ardatzean lan-merkatua nagusitu da, bere sarbide-legeekin eta lanean jarraitzeko baldintzekin eta egoerekin: hots, generoagatik, adinagatik edo etniagatik lan-merkatuan sartzeko aukera ezberdinak izatearekin. Era berean, merkatuaren beraren gorabeherak zehaztu dituzte produkzioaren emaitzak, eta alderantziz. Produktibitatea dinamismoari eta ekonomia-lehiakortasunari loturiko faktorea dugu. Ardatz honetan honako arloak edo dimentsioak sartzen dira: genero-berdintasuna, lan-merkaturako sarbidea eta hor geratzea, dibertsitatea eta ez diskriminazioa; beste muturrean, produktibitatea.

Bigarren ardatzak lanpostuaren ingurunea eta familiako bizitza nahiz bizitza horren berezitasunak kontrajartzen edo lotzen ditu. Zentzuzkoa da erlazio zuzena dagoela pentsatzea: lan-ingurunean zenbat eta baldintza hobeak izan, laneko bizitza eta familia-bizitza, edo, oro har, lanetik kanpoko bizitza hobeki egokitzeko aukera gehiago daudela dirudi.

Lanpostuari dagokion aldea zatitu egin da: batetik, lanpostuaren ingurunea dago, eta, bestetik, lanpostuaren nahiz langileen ezaugarriak daude. Lehen taldean, lanpostuko segurtasun- eta osasun-arloak, enpleguko malgutasuna eta segurtasuna eta gizarte-elkarritzeta nahiz parte-hartzea sartzen dira. Bigarrenean, langileen gaitasunak eta prestakuntza, enpleguan gustura dauden, eta, horrez gain, lanpostuari dagozkionak sartu dituzte.

3. Lan-merkatua: sarbidea eta geratzea

Proposatutako eskemari jarraiki, lan-merkatuan sartzeko edo lan-merkatutik botatzeko baldintzekin zuzenean lotura duten adierazleak aurkeztuko ditugu lehenengo. 2001eko ekaineko Batzordearen Komunikazioan enpleguari eta gizarte-politikei buruzko erabilgarri dauden adierazleak sartuko ditugu. Hiru taldetan banatu ditugu: genero-berdintasunaren taldean, dibertsitatearen eta diskriminaziorik ez izatearen taldean eta lan-merkaturako sarbidearen taldean.


3.1 Emakumeen lan-merkaturako sarbide ezberdina

Guztiok dakigunez, emakumeak lan-merkatuan duela bi hamarkadatik hona sartu dira era masiboan (kasu honetan, soldataren truke egiten den enplegutzat jo dugu lana).

Krisialdi ekonomiko bortitz baten ondorioz —gogora dezagun Europako herrialdeetan eta Estatu Batuetan II. Mundu Gerran hasi zela aldaketa hori—, eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerantz bideratutako gizarte-aldaketa garrantzitsu batzuen ondorioz (hezkuntzako maila guztietarako sarbidea...), emakumea lan-merkatuan sartzen hasi zen poliki-poliki.

Gaur egun, Eustaten Euskal AEko 2003ko Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestako (BJA) hirugarren hiruhileko datuekin honakoa ikusten da: 16 eta 64 urte bitarteko lau gizonezkoetik hiruk lana dute (% 76,1); aldiz, adin-tarte berean, soilik bi emakumetik batek du lana (% 51,9).

4. grafikoa. 16 eta 64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasen bilakaera, sexuaren eta adinaren arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1994-1998-2002. %




Iturria: Eustat. BJA

Alde edo jauzi hori 90eko hamarkadako erdialdetik hasita aztertuz gero, oso gutxi txikitu dela ikusten da: 1994an 19 puntukoa zen, eta 2002an 26koa. Emakumeen okupazio-tasak nabarmen gora egin duela ikusten den arren, gizonaen tasek ere gora egin dute: % 62tik % 76ra.

Adinei begiratuta, bilakaera xehetasun handiagoz ikusten da. Batetik, belaunaldien efektua bereizten da: enpleguari dagokionez, 30 urtetik beherako emakume gazteak hurbiltzen dira gehien beren adin-taldeko mutiletara. 25 urte eta 34 urte bitartekoetan igo da gehien emakumeen enplegu-tasa. 34 urtetik gora aldea handiagoa egiten da, hobekuntza nabarmenak dauden arren. 49 urtetik aurrera, gogor jaisten da.

Hala ere, 1998tik aurrera, emakumeen adin-talde guztietan izan dira okupazio-tasen gorakadak, gizonaenak handiagoak izan diren arren.

5. grafikoa. 16 eta 64 urte bitarteko emakumeen eta gizonaen enplegu-tasen arteko aldearen bilakaera. Euskal AE. 1994-2002. Urteko batez bestekoak. Ehuneko-puntuak



Iturria: Eustat. BJA.


Enplegu-tasen arteko aldean lortzen den ezberdintasun-adierazlea erabiltzen bada, erdiko taldeetan beherakada nabarmenak ikusten dira (30etik 49ra). Aldiz, gazteen taldean (txikienak dira) eta 50 urtetik gorako taldean gutxiago aldatu dira. 40 eta 49 urte bitarteko emakumeetan dagoen aldea txikitu dela nabarmendu behar da: 40tik 44rako emakumeek 14 puntu kendu dituzte, eta 45etik 49rakoek 26 punturaino kendu dituzte. Badirudi amatasunagatik lana utzi zutenek berriz ere lan-merkatuan sartu izangatik gertatu dela hori.

Azkenik, European enplegurako sarbidean dagoen genero-ezberdintasunari dagokionez, Espainiak eta Euskal AEk oso toki txarra dutela ikusten da. Atzetik Grezia baino ez dute: 2001ean, Grezian 30 ehuneko-puntuko ezberdintasuna zegoen, Espainian 29 ehuneko-puntukoa eta Euskal AEn 28 ehuneko-puntukoa, hau da, EBko batez bestekoa baino 10 puntu handiagoa zen.

Suedia, Finlandia eta Danimarka bezalako iparreko herrialdeek 3, 5 eta 8 puntuko aldea dute, hurrenez hurren.

Oro har, generoaren araberako enplegu-tasetako ezberdintasunak txikituz doaz: EBn bi puntu jaitsi dira azken 5 urteetan. Hala ere, Belgika, Portugal, Espainia eta Euskal AE bezalako herrialdeetan aldaketa kontraesankorrak daude. Agian lan-merkatuetako berezko ezaugarriengatik (behin-behinekotasuna...), edota gizonentzat erritmo biziagoa duten enplegu-igoera gogorrengatik izango da.

6. grafikoa. 15 eta 64 urte bitarteko emakumeen eta gizonen enplegu-tasaren aldearen bilakaera, herrialdeen arabera. 1997-2001. Ehuneko-puntuak




Iturria: Employment Committee. Indicators for monitoring the Employment Guidelines 2002. Compendium-JER2002. Eustat BJA (16-64 urte).

Genero-ezberdintasuna aztertzen amaitzeko, generoek langabezian duten tartea eta bilakaera aztertzea ez dago soberan. 7. grafikoa ikusten denez, Euskadiko, Greziako eta Espainiako emakumeek toki txarrak dituzte berriz ere. 2001ean, 16 eta 64 urte bitarteko emakumeekin 8 eta 9 puntuko aldea zuten gizonezkoen langabezia-tasarekiko (gure kasuan langabearen definizio berria hartu dugu definiziotzat).

Aitzitik, Erresuma Batuko, Suediako eta Irlandako herrialdeetako emakumeek gizonek baino langabezia-tasa txikiagoa dute. EBko batez bestekoaren (2,3 ehuneko-puntu) eta atzean diren herrialdeen batez bestekoaren arteko aldea handia da: 5 eta 6 puntu bitartekoa.

Hala ere, Espainian nahiz Euskal AEn behera egiteko joera handia dago. Euskal AEn batez ere, jaitsiera izugarria izan da: 1997an 13 ehuneko-puntukoa izatetik 2001ean 8 ehuneko-puntukoa izatera pasa zen.

7. grafikoa. 15 eta 64 urte bitarteko emakumeen eta gizonen langabezia-tasaren aldearen bilakaera, generoaren eta herrialdearen arabera. 1997-2001.
Ehuneko-puntuak



Iturria: Employment Committee. Indicators for monitoring the Employment Guidelines 2002. Compendium-JER2002. Eustat BJA (16-64 urte).

Batzordeak genero-bazterketaren beste adierazle batzuk ere proposatu ditu: lanbidearen eta jarduera-sektorearen ikuspegiaren arabera banaketak (beren arteko tartekak), bai eta emakumeek ardura-mailetara duten sarbidea ere. Randstad txostenak soldatetako aldeak ere gehitu ditu. Adierazle hori «Structural Indicators» gaiari buruzko dokumentuan jaso zuen Eurostatek.⁸

Adierazle horietako datuen arabera, 1999. urtean, Europako emakumezko langile batek gizonezko batek ordutako zituen sarreraren % 83ko sarrerak zituen. Alde hori egonkor mantendu zen 1994an (informazio mota-hori lehen aldiz eman zen).⁹

Espainiak batez bestekoa baino ehuneko handiagoa du (1999an % 86koa zen ehuneko hori). Joera negatiboa du, 1994. urtean emakume batek gizonezkoaren soldataren % 90 eta bi urte geroago % 86 kobratzen baitzuen. Erresuma Batua (% 78) eta Herbehereak nahiz Austria (% 79) dira generoaren arabera soldatan ezberdintasun handiena duten herrialdeak. Portugalak (% 95) eta Italiak (% 91) dute generoaren arabera soldatan ezberdintasun txikiena.


Zalantzarik gabe, ezberdintasun horien atzetik merkatu nazionalen eraketa (generoaren arabera sektoreen eta okupazioaren banaketa) eta merkatuotako legeria egon daitezke. Ildo horretan, litekeena da ekonomia-ehun konplexuetako soldata-motak eta -eskalak ere genero-ezberdintasunarekin zerikusia izatea.

⁸ <http://europa.eu.int/comm/eurostat/Public/dashshop/print-product/EN?catalogue=Eurostat&product=1-structur-EN&mode=download#Emploi> [2003-11-1]

⁹ <http://europa.eu.int/comm/eurostat/Public/dashshop/print-product/EN?catalogue=Eurostat&product=1-em030-EN&mode=download> [2003-11-1]

Datu horiek autonomia-erkidegoen arabera eskaintzen dituen iturri bakarra aurkitu dugu gaurdaino: 2000ko Europar Batasuneko Etxe Panela, alegia.¹⁰

8. grafikoa. Soldatako ezberdintasuna (hileko soldata), generoaren eta autonomia-erkidegoen arabera. Espainia=100. 2000.



Iturria: INE, Europar Batasuneko Etxe Panela. 2000.

Astean 15 ordu edo gehiago lan egiten duten alokatuak eta beren hileko batez besteko soldatak kontuan hartuta, Estatu osoarekiko dauden aldeak ikus daitezke, sexuaren eta autonomia-erkidegoen arabera. Neurri batean, Europan atzemandako fenomenoak errepikatzen da: Extremadurak, Gaztela-Mantxak, Andaluziak, Errioxak, Kanariak eta Balear Uharteak dituzte alde txikienak. Pentsatzekoa da soldata berdintasunaren eta nekazaritzaren eta/edo zerbitzu jakin batzuen jardueraren artean loturaren bat dagoela.

Bestalde, alde handienak Katalunian, Aragoian, Euskal AEn eta Nafarroan daude.


Datu horiek ikuspegi bat eskatzen dute. Esan dugunez, egitura profesionala eta sektoreen egitura kontuan hartu beharko lirateke, atzemandako ezberdintasunak azaltzeko.

¹⁰[http://www.ine.es/inebase/cgi/axi?AXIS_PATH=/inebase/temas/t25/p442/a2000/10/&FILE_AXIS=04049c.px&CGI_DEFAULT=/inebase/temas/cgi.opt&COMANDO=SELECCION&CGI_URL=/inebase/cgi/\[2003-11-1\]](http://www.ine.es/inebase/cgi/axi?AXIS_PATH=/inebase/temas/t25/p442/a2000/10/&FILE_AXIS=04049c.px&CGI_DEFAULT=/inebase/temas/cgi.opt&COMANDO=SELECCION&CGI_URL=/inebase/cgi/[2003-11-1])

3.2. Adinaren arabera lan-merkatutik irtetea

Txosten honen sarreran esan dugunez, Estatu Batuetan 55 eta 64 urte bitarteko pertsonen proportzio ia bikoitza ari da lanean Europarekin alderatuta (1999.urtean, Estatu Batuetan % 57 ari ziren lanean eta European % 36).

Erretiro aurreratua hobekuntza pertsonaltzat eta sozialtzat jotzen zen beste garai batean. Aldiz, egun bi egoera negatibo planteatzen ditu: batetik, Gizarte Segurantzako kontuotarako karga eta galera bat da; bestetik, giza-kapital baliagarriaren galera dakar, askotan pertsona egoera fisiko nahiz psikiko ezin hobeagoan baitago. Gainera, hori guztia jaiotza-tasa murriztearen ondorioz sortzen den efektuarekin gertatzen da. Hau da, lan-merkatura doazen belaunaldietako pertsona-kopurua gero eta txikiagoa da.




Iturria: Eustat. BJA.

2002. urtean, 55 eta 64 urte bitarteko bost pertsonatik bi zeuden lanean (% 39,7), hau da, gutxi gorabehera 91.000 pertsona. Serieari jarraituta, kopuru horrek 1994.urtea arte igotzen jarraitzen duela ikusten da: hasieran poliki-poliki zihoan eta aldiaren amaieran indar handiagoz hazi da. 2001. eta 2002. urteen artean, hiru ehuneko-puntu igotzera iritsi da.

Pertsona zaharrenak lan-munduan geratzearen adina luzatu izanaren atzetik, lehen adierazitako arrazoiak egon daitezke. Hau da, berrikusitako azken sektorean (zerbitzuak) izan diren doitze-prozesuak (birmoldaketa izen ezegokia eman zaie) amaitu dira, eta, gainera, pentsio hobeak eta osoagoak lortzeko kotizazio-urteak igotzeko neurriak jarri dituzte. Orokorrean osasunak ere hobera egin duela ezin dugu baztertu faktore eraginkortzat.

Generoari dagokionez, biek gora egin dute. Gizonezkoei dagokienez, kantitatea handia da: % 43tik % 58ra igo da. Emakumeei dagokienez, aldiz, igoera esanguratsua izan da: 1994an % 14koa izatetik 2001ean % 22,6koa izatera pasa da.

10. grafikoa. 55 eta 64 urte bitarteko biztanleen enplegu-tasaren bilakaera, sexuaren eta herrialdeen arabera. 2001. %



Iturria: Employment Committee. Indicators for monitoring the Employment Guidelines 2002. Compendium-JER2002. Eustat. BJA.

Suedia baino ez da hurbiltzen Estatu Batuetako egoerara (2001ean % 66,5eko tasa lortu zuen). Haren atzetik Danimarka dator (% 58), eta ondoren Erresuma Batua (% 52,3). Adierazle horretan, Espainia Europako batez bestekora iristen da ia-ia (% 38,5), Herbehereekin, Greziarekin eta Alemaniarekin batera. Euskal AEk 2,6 ehuneko-puntuko distantzia du Europar Batasuneko batez bestekoari dagokionez. Hala ere, Frantziaren, Austriaren, Italiaren, Luxenburgoren eta Belgikaren aurretik dago. Herrialde horiek azken bi herrialdeen % 24aren eta Frantziaren % 31ren artean daude.

Lan-merkatuan geratzeari dagokionez dauden alde hauek estatuetakoko legediagatik izan daitezke, bai Gizarte Segurantzaren legediagatik bai gastu publikoa berrikusteko politiken legediagatik.

Azkenik, atal honetan iruzkindutako «Dibertsitatea eta ez diskriminazioa» adierazlea Batzordearen dokumentuan¹¹ sartuta dago, jatorri etnikoagatik edo ezgaitasunengatik diskriminatutakoei buruzko beste adierazle batzuekin batera. Dokumentu hori lortzea oso zaila izan da (askotan iturri administratiboetara edo zentzuetakoetara jo behar da). Beraz, oraingoz ezin izan dugu sartu. 2001eko Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentzuek adierazle horiei buruzko azalpenen bat eman ahal izango digute eskuragarri daudenean.

¹¹ BRUSELA, 2001.6.20. COM (2001)313 amaiera. 13. orria

3.3 Lan-merkatuan geratzea eta lan-merkatuko aldaketak: fluxuen ikerketa

Lan-merkatua nahiz oro har fenomeno ekonomiko eta demografikoak aztertzen dituen edozein analistak dakienez, aldaketak eta bilakaerak daudenean sortzen diren estatistikak beste fenomeno edo mugimendu batzuen ondorioz sortutako emaitzak edo «saldoak» dira.

Esate baterako, espazio jakin bateko *stock* adierazlea aldatzea jaiotza-fluxuen, heriotza-fluxuen eta migrazio-mugimenduen fluxu jarraituen ondorioz gertatzen da. Gerta daiteke bi toki guztiz ezberdinetan biztanle-kopuruen arteko ezberdintasun berak gertatzea, oso aldaketa ezberdinen ondorioz: esate baterako, jaiotze-tasa eta heriotza-tasa altuak dituen herrialdearen (antzinako erregimen demografikoaren ezaugarriak dituen) eta tasa baxuak dituen herrialdearen artean. Nahiz eta aldaketa bera izan, erraz asma daiteke lehen adibidea gizarte oso gazteko garapen bidean den herrialde batekoa dela, eta bigarren adibidea piramide zaharkitua duen herrialde aberats batekoa dela.

Lan-merkatuan sartzen edo lan-merkatutik irteten diren langileen aldaketekin beste horrenbeste gertatzen da: badakigu langabeziak edo okupazioak gora egiten duen, baina ezin dugu beti jakin langabetzat edo alokatutzat jotzen ditugunak nondik datozen. Are gutxiago, merkatuaren bilakaeran zer garrantzi duten. Egoera batetik bestera izandako aldaketen norabidea eta intentsitatea ere ezin dugu jakin.

Arazo horiek konpontzen saiatzeko luzetarako analisia erabiltzen da. Luzetarako analisia multzo-serie jakin baten jarrera banaka aztertzeari eta horren segimendua egiteari esaten zaio.

Oraingoan, Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkestako panelean zeuden banakakoek 1997-1998 aldian eta 2001-2002 aldian izandako aldaketak hartu dira kontuan. Urteko batez bestekotzat hartu dira, fluxuen norabidea eta garrantzia balioztatu ahal izateko.


Horrelako analisia egiteko, batetik Europar Batasuneko Etxe Panela (PHOGUE)¹² eta bestetik lan-indarren inkestak erabil daitezke. Izan ere, izaera jarraitua dute (urte osoan jasotzen dira, eta lagina errotazioan dabilen arren, inkestako aldian denbora luzez egoten da, 18 hilabete hain zuzen).

Europako Enplegu Batzordearen 2002ko enplegurako jarraibideak kontrolatzeko dokumentuetan, alderaketak egiteko behar-beharrezko hiru adierazle sartu dira. Hona hemen adierazle horiek: lehenik eta behin, enpleguaren eta enplegu-ezaren eta aktibotasun-ezaren arteko trantsizioa; bigarrenik, enpleguaren, enplegu-ezaren eta kontratu-motaren arteko trantsizioa; eta azkenik, enpleguaren, enplegu-ezaren eta trebakuntzaren arteko trantsizioa. Hirugarren trantsizio hori enplegu-kalitatearen arloan «gazteen bizitza aktiborako trantsizioa» esaten zaiona da.

Luzetarako ikuspegitik adinaren arabeko mugimenduak zehazteko oso lagin zabalak behar direnez, egokitzeak jo dugu beste bi adierazleak baino ez ateratzea eta aztertzea.


¹² http://www.ine.es/prodyser/catalogo/masinfo_phogue.htm [2003-11-1] Metodologia: http://www.ine.es/daco/fichas/ficha_phogue.htm [2003-11-1]

11-A grafikoa. Okupazioaren, langabeziaren eta aktibotasun-
ezaren arteko trantsizioa. Euskal AE. Urteko batez
bestekoak. 1997-1998. %.




Landunak 1998 Langabeak 1998 Ezaktiboak 1998

11-B grafikoa. Okupazioaren, langabeziaren eta aktibotasun-
ezaren arteko trantsizioa. Euskal AE. Urteko batez
bestekoak. 2001-2002. (%)




Landunak 2002 Langabeak 2002 Ezaktiboak 2002

12. grafikoa. Okupazioaren, langabeziaren eta
aktibotasun-ezaren arteko trantsizioa. Espainia.
1997-1998. %.



Landunak 1998 Langabeak 1998 Ezaktiboak 1998

13. grafikoa. Okupazioaren, langabeziaren eta aktibotasun-
ezaren arteko trantsizioa. EB. 1997-1998. %.



Landunak 1998 Langabeak 1998 Ezaktiboak 1998

Iturria: Employment Committee. Indicators for monitoring the Employment Guidelines 2002. Compendium-JER2002. Eustat. BJA.

11.-A, 11.-B, 12. eta 13. grafikoetan 16 eta 64 urte bitarteko biztanleriarako fluxuak daude jasota, jarduerari dagozkien talde handiak kontuan harturik: landunak, langabeak eta ezaktiboak. Pertsona berek bi urtetan egindako mugimenduen batez bestekoa erabili da unitatetzat.

Hala 1997 eta 1998 bitartean nola 2001 eta 2002 bitartean, BJAko laginean jarraitu duten pertsonak kontuan hartuta, egonkortasun handi bat atzeman daiteke landunen taldean (lehen aldian % 93,1k jarraitzen zuten egoera horretan, eta bigarren aldian % 93,4k).

1997 lanik gabe zeudela adierazten zuten pertsonetatik hiruk baino apur bat gehiagok (% 35,3) aurkitu zuten lana hurrengo urtean; ordea, 2001eko langabeen % 43k aurkitu zuten lana. Lehen aldian, erdia (% 56,3) langabezian gelditu ziren, eta ehuneko hori bigarren aldian % 34,8koa baizik ez da. Lan-merkatua hobetu izanak langabeziako egonaldiak laburtzea eragin duela dirudi.

1997an zeuden langabeen % 8,4 bakarrik igaro ziren aktibotasun-ezera hurrengo urtean, eta 2001ean zeuden langabeen kasuan, ordea, ehuneko hori hirukoiztu egin zen: % 24,5 aipatu den egoerara igaro ziren, lana bilatzeari utzi zioten, etxeko lanetara itzuli ziren, erretiroa hartu zuten edo ikasle direla esatera igaro ziren. Emakume-talde handi baten mugikortasuna azpimarratuko dugu, jarduera batetik bestera maiz aldatzen baitira (lan bila, lanean edo etxeko lan ordaingabeen). Ez da baztertu behar 2002an langabeziaren definizioan izan zen aldaketaren efektua, dakigunez, talde horri eragiten dio eta.


Ezaktiboen taldea ere egonkorra da, baina 1997 eta 1998 bitartean askoz egonkorragoa zen, % 87,1ek egoera horri eusten baitzioten; 2001-2002 aldian, ordea, laginetan pertsona komunak % 84,9 ziren bakarrik. Hala eta guztiz ere, lehen aldiko ezaktiboen % 6,1ek lana lortu zuten, eta ehuneko hori nabarmen gehitu zen bigarren aldian (% 9,8).

1997-1998 aldia kontuan harturik, Espainiako lan-merkatu orokorrak ez du, fluxuei dagokienez, Europar Batasuneko merkatu osoaren oso bestelako joera. Landunen egonkortasuna apur bat txikiagoa da: azpimarratu beharreko emaitzen artean, Europar Batasuneko batez bestekoan, landunen % 92,4k egoera berean jarraitu zuten, eta espainiarren artean, ordea, % 89,4k; aitzitik, gehiago igaro ziren langabeziatik lana izatera (Espainian, 1997ko langabeen % 35ek lana lortu zuten 1998an, eta Europar Batasunean, aldiz, % 30,3ra murriztu zen ehuneko hori).

Euskal AEn kalkulaturiko fluxuetako batzuk Europar Batasuneko antza handiago dute Espainiakoena baino: landunen egonkortasun-tasak % 93,1 eta % 92,4 ziren, edo langabezian jarraitzen zutenen tasak % 56,3 eta % 52,4 (Espainian azken tasa horri % 48,2 zegoen).


Ez da hain maiz igarotzen aktibotasun-ezetik landun izatera: % 6,6 Euskal EAn, Espainiako % 7,8ren edo % 9,8ren aldean, hori esplikatzeke, kontuan hartu behar da emakumeak eragozpen handiagoak dituztela lan-merkatuan sartzeko, eta halaber, beharbada, talde horretan erretiratuek pisu handiagoa dutela, Euskal EAn piramidea nahiko zahartuago dago eta.

14-A grafikoa. Okupazioaren eta okupazio-ezaren arteko trantsizioa, kontratu-motaren arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1997-1998. %.




■ K. finkoa-1998 ■ Aldi baterakok-1998 ■ Enplegurik ez-1998

14.-B grafikoa. Okupazioaren eta okupazio-ezaren arteko trantsizioa, kontratu-motaren arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 2001-2002. %.




■ K. finkoa-2002 ■ Aldi baterakok-2002 ■ Enplegurik ez-2002

15. grafikoa. Okupazioaren eta okupazio-ezaren arteko trantsizioa, kontratu-motaren arabera. Espainia. 1997-1998. %.



■ K. Finkoa-1998 ■ Aldi baterakok-1998 ■ Enplegurik ez-1998

16. grafikoa. Okupazioaren eta okupazio-ezaren arteko trantsizioa, kontratu-motaren arabera. EB-15. 1997-1998. %.



■ K. Finkoa-1998 ■ Aldi baterakok-1998 ■ Enplegurik ez-1998

Iturria: Employment Committee. Indicators for monitoring the Employment Guidelines 2002. Compendium-JER2002. Eustat. BJA.

14.-A eta 14.-B grafikoetan, «enplegurik ez» taldean langabeak, kontraturik gabeko landunak –Batzordeak aholkatzen duen bezala– eta ezaktiboak sartu dira. «Kontratu finkoak» taldean, soldatarik gabeko landunak sartu dira, besteren kontura kontratu finkoa zutenez gain. Kasu bietan horiek sartu behar dira, ahalik eta fluxu-kopururik handienari eusteko, batetik, eta lagin nahikoa izateko, bestetik.

Lehenik eta behin, azpimarratu behar dugu kontratuen egonkortasunaren iraupen-tasa handia dela; 1997 eta 1998 bitarteko landunen % 92,3k eta 2001-2002 aldikoen % 91,6k kontratu finkoarekin edo soldatarik gabeko landun gisa (enplegatzailleak edo autonomoak) jarraitzea lortu zuten. Lehen biurtekoa kontuan harturik, tasa hori bat dator Europar Batasunekoarekin. Gainerakoetatik, bi epeetan % 2,7 eta % 4,5 aldi baterako kontratuetera aldatu ziren. Enplegurik gabe egotera aldatzeari dagokionez, joera koherentea da: batean % 5,2, eta hurrengoan % 3,9. Badirudi kontratu finkotik aldi baterako kontratura aldatzeak kontratu finkotik enplegurik ezera igarotzea ordezkatzeko joera duela.

Bilakaerarik negatiboena aldi baterako kontratua dutenen artean gertatzen da. 1997an egoera horretan zeuden erdia baino gehiagok (% 54,3) hala jarraitu zuten 1998an, eta 2001 eta 2002 bitartean hori areagotu egin zen, aurreko tasa % 65,1era igo baitzen. Aztertutako epetako lehenean aldi baterako kontratua zuten hirutik ia batek (% 32) lortu zuten lan-kontratu finkoa, baina, ordea, proportzio hori bostetik bat da (% 19,8) bost urte geroago,

Enplegurik gabekoen taldean (ezaktiboak, langabeak eta kontraturik gabeko landunak) ia ez dago aldakuntzarik. Horrek adieraz lezake talde horretan fluxuek arrazoi demografikoak dituztela, ekonomikoak baino behiago, aztertutako aldietan, behintzat.


Europar Batasuneko egoeraren aldean dagoen ezberdintasun nagusia da aldi baterako kontratua dutenek kontratu finkorako mugikortasun txikiagoa dutela: hirutik batek baino gehiagok lortu zuten egonkortasuna Europar Batasunean (% 34,6); Espainian baino hiru ehuneko-puntu gehiago da hori, eta 2,6 gehiago bakarrik, 1998 eta 1997 bitartean Euskal AEko landunei dagokienez. Espainian zein Europar Batasunean, aldi baterako kontratuei dagokienez, egoera horri eutsi diotenen ehunekoa handia ez denez, egoera horretatik langabeziara aldatzea maizago gertatzen da (% 25,4 eta 23,5 hurrenez hurren) Euskal AEn baino: % 13,7 bakarrik.

Hala, bada, Espainiako lan-merkatuaren ezaugarri nagusia, eta Euskal AEko merkatuarena, batez ere, aldi baterako lanaren txandakatze txikia da edo, bestela esanda, merkatuko lan-indarraren zati handi bat egonkortzerakoan, zurruna izatea.

3.4 Kontratuen behin-behinekotasuna

Euskal AEko lan-merkatuan behi-behinekotasunetik ateratzea Espainiakoan edo Europakoan baino zailagoa dela ikusi dugu.

17.grafikoa. Aldi baterako kontratua duten 16 eta 64 urte bitartekoek okupazio-tasen bilakaera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1994-2002. %.



Iturria: Eustat. BJA


Euskal AEn, 16 eta 64 urte bitarteko bost landunetatik batek behin-behineko kontratua du. Bederatzi urtean, 1994tik 2002ra bitartean, hiru ehuneko-puntu igo da, baina badirudi azken lau urteetan % 23 inguruan egonkoritu dela.

Europako egoera analizatzen badugu, atzeman daiteke 2001ean, Europar Batasun osoan, 1998an eman zuen % 13ko behin-behinekotasun tasari eutsi zaiola. Espainiako tasa oso nabarmentzen da, Europar Batasunekoa ia halako hiru baita, % 31,7 (1998an baino 1,4 ehuneko-puntu gutxiago).

Espainiako tasaren atzetik Euskal AEkoa dator, baina 2001ean baino bederatzi puntu gutxiagorekin. Portugal baizik ez zen Euskal AEko egoerara hurbilduko: % 20.6ko tasa du konparatu den azken urtean.

Finlandia, Frantzia eta Herbehereak, nabarmenki, Europako batez bestekoaren gainetik daude, eta, aldiz, Erresuma Batuan (% 6,8), Luxenburgon (% 5,8) eta Irlandan, batez ere, (% 3,7) behin-behinekotasunak oso txikia dirudi.

18. grafikoa. Aldi baterako kontratua duten 15 eta 64 urte bitartekoen okupazio-tasen bilakaera, herrialdeen arabera. 1998-2001. %



Iturria: Eurostat, Employment in Europe 2002; Eustat, BJA (16 eta 64 urte bitartean).

4. Lana eta familia bateratzea

Kalitateari eta gizarte-kohesioari loturik, lana familiarekin bateratzeko helburua agertzen da, gizakien bizitzan oinarritzkoak diren bi alderdi horien artean oreka bilatzeko helburua.

Batzordeak hiru adierazle proposatzen ditu: lan malguak dituzten langileen proportzioa; amatasun- edo aitatasun-baja izateko aukerak eta haren erabilera; eta adingabeak zaintzen laguntzeko dauden gizarte-baliabideak.

Guk, alderagarritasunerako eta iturri homogeneousak izateko zailtasunak direla eta, oinarritzko bi adierazle erabiliko ditugu: lanaldi malguen banaketak, eta amatasunaren edo aitatasunaren eragina lanean.


4.1 Lanaldi malgua

Adierazle horrek ematen duen lehen zailtasuna da adierazlea bera zehaztea. Batetik, nahi den egoera ala inposaturiko egoera den bereizi beharko litzateke. Bestetik, lanaldi bat kategoria horretan sartzeko, orduen zein banaketa eta proportzio diren beharrezkoak zehaztu beharko litzateke.

Enplegu Batzordeak, 2002ko enplegu-jarraibideen segimendua egiteko adierazleetan, borondatez lanaldi laburreko lanpostuetan lan egiten duten langileen kopurua proposatzen du.

Estatistikari dagokionez, lanaldi laburraren definizioak sektoreko batez besteko orduak baino gutxiago egiten dituztenak hartzen ditu barruan. Informazio hori ez dugunez, landunak asteko lanorduen arabera nola banatzen diren, oro har, azaldu ondoren, lanaldi laburra neurtzeko astean 30 ordu baino gutxiago hartzen dituen finkatuko dugu (erreferentziako astean lan egin ez duten landunak kalkuluan sartuko dira).


19. grafikoa. 16 urte eta gehiagoko landunek astean lan egindako orduen bilakaera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1998-2002. %.



Iturria: Eustat. BJA

19. grafikoa azaltzen da nola azken bost urteetan ia aldaketarik ez dagoen asteko lanordu-kopuruaren banaketan. Asterik ohikoena 40 ordukoa da (ia landunen erdiak betetzen duena), eta hurrengo 30 eta 39 urte bitartekoa da (seitik bat). % 9 inguruk 44 ordu baino gehiago ere lan egiten dute, eta ia % 10ek 15 eta 29 bitartean. % 2 eta % 3 bitartean daude astean 15 ordu baino gutxiago lan egiten dutela esaten dutenak.


20. grafikoa. Astean 30 ordu baino gutxiago lan egiten duten 16 urte eta gehiagoko landunak, sexuaren eta urtearen arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1998-2002. %.



Iturria: Eustat. BJA

Analisiaren arreta lanaldi laburrean (astean 30 lanordu baino gutxiago) jartzen badugu, murrizteko joera txiki bat atzeman daiteke, 1999an eta 2000n landunen % 14ren aukera zen, eta 2001-2002an % 12 baino gutxiago dira. Emakumeen artean nabarmen murrizten da: 1999-2000n lautik batek zuen lanaldi hori (% 24,2) eta hurrengo bi urteetan, ordea, bostetik batek (% 19,4 eta % 20,6, hurrenez hurren).

21. grafikoa. Lanaldi laburra duten 15 eta 64 urte bitartekoen okupazio-tasen bilakaera, herrialdeen arabera. 1998-2001. %



Iturria: Employment Committee. Indicators for monitoring the Employment Guidelines 2002. Compendium-JER2002. Eustat BJA (16-64 urte).

2001ean, Europar Batasuneko hiru emakumetarik batek lanaldi hori aukeratu zuen, eta 16 eta 64 urte bitarteko langileen % 18k zuten lanaldi-mota hori. Lanaldi-mota horren paradisua Herbehereetan zegoen, han bost langiletatik bik halakoa baizuten, eta emakumeen artean, % 71k.

Erresuma Batua zen lanaldi laburreko kontratua gehien erabiltzen zen bigarren herrialdea (langile guztien % 25, eta emakumeen % 44,1). Grezia (% 4) eta Espainia (% 8) azken postuetan zeuden.

Euskal EAre postua (esan bezala, borondatezko egoera izan edo ez kontuan hartzen ez duen definizio bat erabiltzen du) Europar Batasunaren batez bestekotik 6,4 puntura dago, 16 eta 64 urte bitarteko landunei dagokienez, eta 14 ehuneko-puntura emakumeen kasuan.

4.2 Amatasuna eta enplegua

Ugalkortasunaren eta lanaren arteko erlazioa demografiaren ikerketa-arlo klasikoa izan da, bai eta ekonomia-zientzia ere. Bizi-zikloak lan-merkatuan sartzearekin eta lan-merkatutik irtetearekin erlazionatu dira, eta soldatei dagozkien amatasunaren kostu erlatiboak ikertu dira.

Hipotesiak eta emaitzak gorabehera, beti apriorismo bera egon da, amatasunak eragin negatiboa duela lanean. Bestalde, gure gizartean gero eta lotuago daude amatasun-adina atzeratzea eta lan-aukerak.

Emakumeentzat ondorio okerragoak dituenaz, Enplegu Batzordearen agiriak adierazle bat definitu du amatasunak enpleguan duen eragina neurtzeko asmoz. Umerik gabeko gizonezkoen aldean, 0 eta 6 urte bitarteko umeak dituzten gizonezkoen proportzioaren eta, umerik gabeko emakumezkoen aldean, adin horietako umeak dituzten emakumezkoen proportzioaren arteko zatidura kalkulatu da. Ratio horren xedea izango den populazioak 20 eta 50 urte bitartekoa izan beharko du, eta okupazio-tasen arabera sailkatuko dira. Dena dela, datu hori kalkulatu baino lehen, Euskal AEko egoera sakonago aztertuko dugu.

1. taula. 20 eta 50 urte bitarteko biztanlean familiaguneetan (lehenak), 7 urte baino gutxiagoko umeak dituzten ala ez sailkatuta, sexuaren arabera eta jarduerarekin duten loturaren arabera. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 2002.

	GIZONEZKOAK			EMAKUMEZKOAK		
	Guztira	Seme-alabarik gabe	Seme-alabadunak	Guztira	Seme-alabarik gabe	Seme-alabadunak
Guztira	257	176	81	302,9	216,2	86,8
Landunak	243,1	164,6	78,4	182,3	132	50,3
Langabeak	6,5	4,9	1,5	20,5	14,6	5,8
Ez-aktiboak	7,5	6,4	1	100,1	69,5	30,6
Landun-tasa	94,6	93,5	96,8	60,2	61,1	57,9
Langabezia-tasa	2,5	2,8	1,9	6,8	6,8	6,7
Ez-aktibotasun tasa	2,9	3,6	1,2	33,0	32,1	35,3

Iturria: Eustat. BJA

BJAtik (Eustatek 1985etik jarraian egin duen eragiketa) lortu dira 1998 eta 2002 bitarteko gizonezkoen eta emakumezkoen zenbatekoak, umeak dituztenenak zein umerik gabekoenak, eta jardueraren arabera sailkatuta. 1. taulan 2002ri dagozkionak

azaltzen dira, eta 22. grafikoan proposaturiko adierazlearen emaitzak daude jarrita, 1998. 2000. eta 2001. urterako. Adierazgarritasuneko eta zailtasuneko arrazoi teknikoengatik, bigarren eta hurrengo familiaguneak kanpo utzi dira; dena den, horiek oso pisu txikia dute.

Lehen datu harrigarria da, gizonezkoentzat zein emakumezkoentzat, seme-alaba txikiak izateak edo ez izateak ez duela, antza denez, zerikusi handirik okupazio-mailarekin, nahiz eta batzuen eta besteen okupazio-tasak hain ezberdinak izan (gizonezkoena % 94,6 da, eta emakumezkoena ia % 60). Hiru ehuneko-puntuko aldea dago bakarrik umeak dituzten gizonezkoentzat, eta umeak dituzten emakumeek hiru puntu gutxiago dituzte, bakarrik, umerik gabeko beste emakumezkoek baino. Generoaren eragina soilik ikusten da argi, baina amatasunarena edo aitatasunarena, hala badagokio, ez.


Langabezia-tasari dagokionez, gauza bera gertatzen da, eta ezin da esan alde handirik dagoenik ume txikiak dituztenen eta ez dituztenen artean; langabezia-tasa ia puntu bat txikiagoa da lehenen artean.

Ondorio gisa, okupazio-maila eta langabezia-mailan generoaren eragina baizik ez dela argi ikusten esan daiteke, baina ez dela hala gertatzen amatasunaren eta aitatasunaren eraginari dagokienez.

Ratioa kalkulatu ondoren, 2002rako 1,09ko puntuazioa dugu Euskal AEko datuekin. Ietik oso hurbil dagoenez, okupazioak ez diola amatasunari eragiten adieraziko luke, geroagokoa izan daitekeelako: amatasuna edo aitatasuna atzeratzen da lanpostua izan arte.

Aztertu diren bost urteetan, adierazlea 1,09tik eta 0,96 (2001ekoa) bitartean dago.

22. grafikoa. Enpleguan generoek duten aldearen bilakaera, amatasunaren eta herrialdeen arabera. 1998-2001



Iturria: Employment Committee. Indicators for monitoring the Employment Guidelines 2002. Compendium-JER2002. Eustat. BJA

Euskal AEko datu horren parekoak, 2001 urteari dagokionez, Portugaleko ratioa (1,08 puntu) eta Belgikakoa (1,15) dira bakarrik.

6. grafikoan ikusi genuen bezala, egoera horrek emakumezkoek herrialde horietan duten okupazio-tasa txikiarekin izango zuen lotura.¹³

Europar Batasuneko batez bestekoa, 11 herrialdetako datuekin soilik kalkulatu, 1,36 zen 2001ean, 1998an baino bost ehunen gutxiago. Alemania (1,53 puntu), Erresuma Batua (1,47) eta Espainia (1,37) herrialdeak lehenak dira amatasunak, gizonak baino neurri handiagoan, emakumeak enplegutik egotzera duen joeraren zerrendan.

Espainia lehenen artean egoteak, hango emakumezkoen okupazio-tasak kontuan harturik, sinesgarritasuna kentzen dio esplikazio horri, eta gizarteko edo kulturako ohiturekin, lan-aukeren mailarekin, legediarekin, eta abarrekin lotura duten beste egoera batzuetara darama azterketa.

5. Langileen eta lanpostuaren ezaugarriak

Arlo horrek (enplegu-kalitatea aztertzeko puntu nagusiak izango lituzke Ergonomiarako eta laneko Segurtasun eta Higienarako), bilduko lituzke, Batzordearen iritziz, lanaren berezko kalitateari dagozkion alderdiak (gogobetetasuna eta lanaren hobekuntza) eta langileen ezaugarri pertsonalak (prestakuntza-mailak, trebakuntza informazioaren eta komunikazioaren teknologietan (IKT), prestakuntza etengabea, eta abar).

Dudarik gabe, giza baliabideen prestakuntza, merkatuari begira zein pertsonen berei begira, funtsezko aldagaia da hobetzeko. Biztanleriaren eskolatzeko-maila okupazioaren arabera aztertuz hasiko gara.

5.1. Giza baliabideen prestakuntza-maila


ELGEk enpleguaren eta heziketaren arteko lotura neurtzeko bide bat proposatu zuen, 2002an, enpleguari buruz duen agerkarian: heziketa-mailen arabera biztanleria landunaren proportzioa ematen zuen, maila ber horiek zituen guztizko biztanleriaren aldean.

23. grafikoan 1998. eta 2002. urtetarako kalkuluak aurkeztu ditugu, adinaren arabera. Lehenik eta behin, esan beharra dago, sexuak bereizita ez daudenez (aztergai dugun kasuan okupazioari oso lotuta dagoen aldagaia dela badakigu), esplikazio batzuk estali egiten direla.

Zehaztu behar dugu lehen mailako ikasketen taldean maila hori lortu dutenak zein lortu ez dutenak sartzin direla (bestalde, honako hauek hartzen dira kontuan: lehen zeuden lehen mailako ikasketak, OHOk lehen eta bigarren ziklokoak –10 urteak arte– eta gaur egungo lehen hezkuntzakoak, bigarren zikloa barne –10 urteak arte ere bai–). Bigarren mailako ikasketen taldean sartzin dira HOHko goi-ziklokoak, maila bera duten lehen hezkuntzako bigarren ziklokoak, LHkoak eta lanbide moduluak, unibertsitate-ikasketetara iritsi arte, horiek hirugarren taldea osatzen baitute.

¹³ IEL, Instituto de Estudios Laborales. ESADE. Informe Randstad de calidad del trabajo. 2003. Pag.68.

23. grafikoa. 25 eta 64 urte bitarteko biztanle landunen eskolatzeko-mailaren araberako ratioaren bilakaera, Euskal AEko eskolatzeko-mailaren arabera 25 eta 64 urte bitarteko biztanle landun guztiaren alderatuta. Euskal AE. Urteko batez bestekoak. 1998-2002



Iturria: Eustat. BJA

Esango dugu, bakarrik, aztertu dugun bost urteko epean (1998-2002), 25 eta 64 urte bitarteko populazioan, lehen mailako ikasketak edo gutxiago dutenen taldeak 3,8 puntu galdu dituela, bigarren mailako ikasketak dutenen taldeak 7,6 irabazi dituela (% 29,3 1998an eta % 36,9 2002an), eta unibertsitate-ikasketak dituztenen taldea lau puntu igo dela, eta ia bostetik bat dira (% 18,2).


Proposaturiko adierazlara jotzen badugu, enpleguaren eta eskolatzeko-mailaren arteko erlaziora, ikusi ahal izango da unibertsitate-ikasketak dutenen taldeak lortzen duela lana proportzio handienera: 2002an, unibertsitate-ikasketak dutenen artean, % 81,3k; hurren, bigarren mailako ikasketak dituztenen % 74,1ek; eta, ordea, lehen mailako ikasketak edo gutxiago dituztenen artean, % 48,1ek bakarrik.

Aztertu den bosturtekoan lan-merkatua hobetu izanak, heziketaren arabera, modu ezberdinean eragiten die pertsonen: prestakuntza gutxien dutenentzat 3,4 ehuneko-puntu hobetu zen, eta bigarren mailako eta goi-mailako ikasketak dituztenentzat, aldiz oso bilakaera berdintsua izan zuen: 5,7 eta 5,1 ehuneko-puntu, hurrenez hurren. Baliteke lanbide-gaitasuna (LH eta abar) duten giza baliabideen eskaerak zerikusia izatea emaitza horiekin.

23. grafikoa ikasketak-mailen arteko tartea ikus daiteke, eta, era berean, goi-mailako dituzten biztanleek oso tasa egonkorra dituztela, 45 urtetik aurrera izan ezik. Ziur aski, lehen ikusi dugun lan-bizitzaren luzapena nabarmenagoa ari da izaten heziketa onenak dituen taldearentzat. Kontuan hartu beharko litzateke, orobat, adin horietara iritsi direla 60ko eta 70eko hamarkadetan Espainiako unibertsitatearen boima sortu zuten belaunaldiak.

Ikasketa gutxien dituztenen artean, 35 eta 45 urte bitarteko taldean dago landun gehien. Talde horretan, emakumeak lan-merkatuan sartu izanak eragin handia izan duela pentsa dezakegu.

24. grafikoa. 25 urtetik 64ra bitarteko instrukzio-mailaren arabeko biztanleria landunaren ratioa, 25 urtetik 64ra bitarteko instrukzio-mailaren arabeko guztizko biztanleriaren aldean, herrialdeka. %



Iturria: OCDE Employment Outlook. July 2002, Eustat: BJA.


24 grafikoa ikus dezakegu goi-mailako ikasketak dituzten biztanleen aprobetxamendua ia berbera dela Euskal AEn eta Espainian, bai eta Grezian eta Italian ere, baina Danimarkaren eta Erresuma Batuen azpitik ia 10 ehuneko-puntura dagoela. Azken bi horiek, antza denez, hobeto kapitalizatzen dute goi-mailako ikasketetan egindako inbertsioa. Europako batez bestekotik bost puntura gaude. Bigarren mailako ikasketak dituztenen aprobetxamendu desegokia ere nabarmena da geure burua lehen aipaturiko herrialdeekin, Herbehereekin edo Suediarekin konparatu nahi badugu.

Giza baliabideen gaitasunak balioztatzerakoan kontuan hartu beharreko beste adierazle bat prestakuntza etengabea neurtuz lortzen da. Zehazki, funtsean lanbide-hobekuntzari loturiko edo horretara zuzenduriko ikastaroren bat azken 12 hilabeteetan egin duten landunen proportzioa erabiltzen da.

16 eta 64 bitarteko landunengan jartzen badugu arreta (langabeei eta ezaktiboei buruz ere ikertzea interesgarria litzateke, dudarik gabe), 2001ean % 6k eta 2002an % 6,8k parte hartu zuten prestakuntza-motaren batean. Bi urteetan, 20 eta 49 urte bitarteko langileek % 5 gainditzen dute, 25etik 29ra eta 35etik 44ra bitartekoak bereziki.

Gazteenei dagokienez, horrek adieraz dezake prestakuntza eskasarekin –edo desegokiarekin, behintzat– iristen direla, edo (horrez gain izan liteke) beren lanean edo lanbidean hobetzeko interes handiago dutela.

25. grafikoa. Azken 12 hilabeteetan ikasketa osagarriak egin dituzten biztanle landunen bilakaera. 2001-2002. %




Iturria: Justizia, Lan eta Gizarte Segurantz Sailsa Eusko Jaurlaritza. Lan-merkatuari buruzko zentsua.

40 eta 45 urte bitarteko taldearen kasuan, ezagutzak neurri handiagoan eguneratu beha dituztela esan nahiko luke.

Erresuma Batuan, Finlandian, Danimarkan eta Suedian du prestakuntza etengabeak mailarik handiena, ia bost langiletatik batek parte hartzen baitu.

Tasa altu horiek Europar Batasuneko batez bestekoa % 8,4ra eta % 8,4ra igotzen dute (2001ean eta 2002an, hurrenez hurren), baina gainerako herrialdeak urrun daude datu horien azpitik.

26. grafikoa. Azken 12 hilabeteetan ikasketa osagarriak egin dituen 25 eta 64 urte bitarteko biztanleria, herrialdeen arabera. 2000-2001. %



Iturria: Eurostat. Labour Force Survey. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantz Sailsa. Eusko Jaurlaritza. Lan-merkatuari buruzko zentsua.

5.2.Enpleguaren berezko kalitatea.

Horri dagokionez, psikosozologiako edo ergonomiako (lanpostuaren eta pertsonaren arteko egokitzapena bilatzen duten zientziak) ikerketez gain, gobernuetako lan sailek, batik bat, aldizkako inkestak egin ohi dituzte, «Bizi-kalitatea enpleguan» (*Working Conditions Survey*) deiturikoak.

27. grafikoa.16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, egiten duten lanarekiko gogobetetasunaren batez besteko mailaren arabera eta autonomia-erkidegoen arabera. 2002.%.




Arlo horri dagokionez, Batzordeak hainbat adierazle proposatzen du: Enpleguarekiko gogobetetasuna (hainbat alderditan –kontratu-mota, lanaldia, kategoria–), lansariak hobetzea eta ezberdintasunak soldaten banaketan.

Kasu honetan, Euskal AEko adierazleak eta Europako gainerako herrialdeetakoak alderatzeko zailtasunak daudenez, Espainiako autonomia-erkidegoetara murriztutako ikuspegi bat eskainiko dugu. Randstad txostenak Europako lan-baldintzei buruzko inkesta (2000) erabiltzen du iturritzat. Interesa dutenei txosten horretara edo inkestara bertara jotzea proposatzen diegu.

Euskal EA lanarekin gogobetetasun gutxien dagoen lau erkidegoen artean dago. Kantabriako, Valentziako eta Andaluziako langileek bakarrik esaten dute Euskal EAKoek baino gogobetetasun gutxiago dutela. Kanarietakoak, batez ere, Balear Uharteetan bizi direnak eta Nafarroakoak beste muturrean daude.

28. grafikoa. 16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, egiten duten lanaren erakargarritasunaren eta interesaren batez besteko mailaren arabera eta autonomia-erkidegoen arabera. 2002.




Iturria: Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa. Laneko kalitateari buruzko inkesta 2002

Gogobetetasun falta horren arrazoia lanpostuaren eta langilearen artean egokitzapenik ez egotea izan daiteke. 28 grafikoak, behintzat, hori adierazten duela dirudi; han, Euskal EAKo langileak lanean erakargarritasun gutxien aurkitzen dutenen taldean daude.

Valentziakoek eta Andaluziakoek talde horretan jarraitzen dute, eta Madrilekoak eta Extremadurakoak sartzen dira; aurreko adierazlean, aldiz, ez ziren oso gogobete gabe azaltzen. Errioxakoek, Kanarietakoek, Balear Uharteetakoek eta Nafarroakoek, berriz ere, lanpostuari hobekien egokituen taldea osatzen dute.

Azkenik, langileen batez besteko estres-mailaren emaitzak laburbilduko ditugu autonomia-erkidegoka. Adierazle horri dagokionez ere, Euskal AE langileek lan-estres gehien sufritzen duten erkidegoen artean ere dago. Extremadurakoek, Andaluziakoek eta Kataluniakoek bakarrik gaingitzen dituzte Euskal EAKoek.

29. grafikoa. 16 urte eta gehiagoko biztanleria landuna, lanarekiko estresaren batez besteko mailaren arabera eta autonomia-erkidegoen arabera. 2002.



Iturria: Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa. Laneko kalitateari buruzko inkesta 2002

Autonomia-erkidegoka hartuta, Mantxako, Galiziako, Aragoiko, Errioxako eta Nafarroako landunek izaten dituzte tentsio gutxien lanean, edo hori adierazten dute, behintzat.

Azken adierazle hori «Osasuna eta Segurtasuna lanean» atalean sartu ohi da; dena den, bilketa-metodologia dela eta, langilearen subjektibotasunaren arloan uztea erabaki dugu.


5.3.Zerbitzuen sektoreko borroka.

Aurretik ikusi dugu nola enplegu-kalitatearen kontzeptua sortzeko zerikusia handia izan zuen Estatu Batuetakoa bezain ekonomia lehiakorra (edo lehiakorragoa) bilatzeak. Horretarako, helburu orokorra gaur egun *informazioaren gizartea* deritzoguna osatzen duten elementuak garatzea zen: informazioaren eta komunikazioaren teknologia (IKT) berriak.

Gai horretako berezko adierazleez gain, zeharreko beste adierazle bat, dudarik gabe, zerbitzuen sektoreak ekonomiaren pisuan izandako hazkundetik dator. Nahiz eta, egia esan, teknologia berriak kokatuta dauden azpisektoreak zehaztu beharko liratekeen, horrela konparaketa zailagoa denez, adierazle orokorra erabiliko dugu.

Langilearen ikuspegitik, azpisektoreen arabera, esan bezala (informazioaren gizartearen edo sektorearen kontzeptu soziologikotik abiatuta hitz egin beharko litzateke), ingurune berri horretan lan-baldintzak hobetzea ere proposa liteke hipotesi gisa, produkzioaren ikuspegiaren aurrean.

30. grafikoa.Zerbitzuetan lan egiten duten eta 16 urte edo gehiago duten landunak, autonomia-erkidegoetako landun guztiekin alderatuta. 2001-IV. hiruhilekoa. (%)



Iturria: INE. Biztanleria aktiboaren inkesta.

Sektore berriaren kokapenari buruzko edo sektore zaharrak berri bihurtzeko metamorfosiari buruzko eztabaida ez litzateke horrela baztertuko, automatizazioak eta kontrolak, beharbada, eginkizunak birmoldatu ahal izan dituztelako, eta esku-langileak informazioaren gizarteko langile bihurtarazi, emaitzak edo produkzio-motak funtsean aldatu gabe.


Sektoreak Espainiako estatuko autonomia-erkidegoen artean duen banaketari begiratzen badiogu, ikus daiteke, Ceuta eta Melilla kenduta, Madrilen dutela zerbitzuek pisurik handiena: lau landunetatik hiru. Kanariak, Balear Uharteak eta Andaluzia ez daude oso urrun, ehuneko horietan turismoaren azpisektoreak eragin handia duelako, beharbada.

Euskal AEk eta Asturiasek antzeko tasak dituzte: % 60,5 eta % 61,7 hurrenez hurren.

Errioxak du zerbitzuen sektore txikiena; hurrengoak Galizia eta, apur bat urunduago, Gaztela-Mantxa, Aragoi, Nafarroa eta Katalunia dira.

Berriz ere diogu, beste sektore batzuek pisu handiagoa izatea ez lukeela adierazi behar eskualde batzuk informazioaren gizartetik urrunago daudenik.

31. grafikoa. Zerbitzuen sektorean lanean dabiltzan 15 eta 64 urte bitarteko biztanleen bilakaera, herrialdeen arabera eta 15 eta 54 urte bitarteko biztanleria guztiarekin alderatuta. 1997-2001 %



Iturria: Employment Committee. Indicators for monitoring the Employment Guidelines 2002. Compendium-JER2002. Eustat BJA (16-64 urte).

Ikuspegia zabaltzen badugu, eta Europar Batasuna hartzen badugu erreferentziazat, ikus dezakegu 2001ean lau herrialdek bakarrik gainditzen zutela zerbitzuen sektorean 15 eta 64 urte bitarteko enplegatuen % 50eko proportzioa, adin beretako biztanleria osoaren aldean: Herbehereek (% 56,9), Danimarkak (% 56,4), Erresuma Batuak (% 52,9) eta Suediak (% 52,5).

Europar Batasuneko batez bestekoa % 44,4 zen, herrialde gehienek erdiguneko, % 40 eta % 50 bitartean zeuden eta.

Azpitik eta ordena honetan, Italia, Espainia, Euskal AE, eta Grezia zeuden. 2001ean, 8 eta 9 ehuneko-puntuako tarte batek aldentzen ditu hiru lehenak Europar Batasuneko batez bestekotik, eta azkena 11ko tarte batek.

Hirugarren sektoreak garrantzi gehien duen herrialdeetan ekonomia-garapen handienak egoteak indartu egiten du ekonomia aurreratzea eta zerbitzuen sektorea handitzea lotzen dituen hipotesi orokorra.

6. Lanpostuaren ingurunea


Lanpostuaren ingurunean honako hauek sartuko ditugu: lanpostuko segurtasunari eta osasunari dagozkien alderdiak; gizarte-segurantzako sistemak; eta gizarte-elkarrizketari eta langileen parte-hartzeari dagokien atala.

6.1.Lan-istripuak: Segurtasunik eza

Dudarik gabe, lan-istripuen arriskuak eta istripuek berek lan-ingurunea baldintzatzen dute. OSALANen (Eusko Jaurlaritzaren) estatistikek ematen dituzten emaitzen aurrean, ezer gutxi esan daiteke.

Batetik, 1996tik 2002ra 16 urte baino gehiagoko landunen kopurua % 23 hazi zen, eta, bestetik, bajako hiru egun edo gehiago eragiten zituzten lan-istripuak % 40 hazi ziren. Aipatu den lehen urtean 40.257 izan ziren, eta 56.265ra igo dira. Esan beharra dago, baina, % 98 eta % 99 bitartean istripu arinak dira. Istripu larriak, 1996an izan ezik, urtean 600 inguruan egonkortu dira.


32. grafikoa. 16 eta 64 urte bitarteko biztanle landunek izaten dituzten lan-istripuen proportzioaren bilakaera. 1996-2002. Euskal AE. %



Iturria: OSALAN, Eusko Jaurlaritzaren. Geuk landua.

Kopuruak biztanle landunekin erlazioan jarri ondoren, aurkezturiko sei urteetan ia puntu bat igo da: 100 langiletatik seik baino apur bat gehiagok urtean istripu bat izaten du.

33. grafikoa 100.000 landuneko istripu-tasa, herrialdeen arabera. EB-15. 1994-1999. Euskal AE. 1996-1999




Iturria: Iturria: Eurostat-ESAW (European Statistics on Accidents at Work) Euskal AE, OSALAN (Eusko Jaurlaritza). Geuk landua.

Euskal AEko istripu-tasa ingurukoekin alderatuta, 1999an 100.000 landuneko 5.716 istripu izan ziren, eta kopuru hori Espainia osokoak bakarrik gaintzen du (7000 bat istripu). Tasa horren banaketa herrialdeka oso asimetrikoa da, eta horren atzetik definizio ezberdinak edo informazio biltzeko metodologia ezberdinak ezkuta daitezke (edo, hala dagokionean, tokian tokiko arau juridikoak). Irlandakoek, Suediakoek, Ingalaterrakoek eta Greziakoek jasaten dituzte gutxien lan-istripuak (2000 kasu baino gutxiago lehen hirurek eta ia 3000 Greziakoek). Europar Batasuneko batez bestekoa 4000ko tasa zen.

Portugalekoek, Frantziakoek, Luxenburgokoek, Belgikakoek eta Danimarkakoek 5000 inguruko istripu-tasa zuten.

34. grafikoa. 16 eta 64 urte bitarteko biztanle landunek izaten dituzten gaixotasun profesionalen proportzioaren bilakaera. 1996-2002. Euskal AE. 0/00



Iturria: OSALAN, Eusko Jaurlaritza. Geuk landua.

Euskal AEn gaixotasun profesionalak nabarmen gehitu dira azken urteetan: ia hirukoiztu egin dira. 1996an mila langiletatik bati erasaten zioten, eta 2002an, ordea, 2,7ri.


6.2. Enpleguaren gizarte-babesa.

Laneko segurtasuna –eta, azken batean, lanaren ingurunearen kalitatea– balioztatzeko, bide zuzen bat gizarte batek lanik gabe gelditzen direnak babesteko erabiltzen dituen baliabideetatik ondorioztatzen da.

Europar Batasuneko eta edozein herrialde aurreratuko oinarritzko elementu horrek Euskal AEn, 1993an (1994. eta 1995. urteekin batera, langabeziaren maila historiko handiena izan zen orduan) 25 eta 64 urte bitarteko langabeen erdia baino apur bat gehiago hartzen zuen barruan.

1997an tasa horrek jaisteko joera bati ekin zion, urte hartan langabeen % 31 bakarrik sartzen baitziren babes horren barruan, eta, gero, langabeen parte handiago batera zabalduz joan zen pixkanaka-pixkanaka. 2001ean langabeen % 45ek zuten langabezia-aseguruaren laguntza.


35. grafikoa. Langabezia jasotzen duten onuradunen guztizkoaren bilakaera, 25 eta 64 urte bitarteko langabeen guztizkoarekin alderatuta.
Euskal AE. 1994-2001. %



Iturria: Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa. Geuk landua.

Adierazle hori Europar Batasuneko testuinguruan kokatzea oso zaila da, iturri gutxi dagoelako, gai horri buruzko legedi ezberdinez gain.

36. grafikoa. 25 eta 64 urte bitarteko langabeen arteko langabezia-prestazioaren onuradunen proportzioa, sexuaren arabera.
Euskal AE=Guztizkoa. 1993. %



Iturria: Randstad. ETUC, Benchmarking Working Europe 2003-n oinarritua. Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa. Geuk landua.

Dena den, 36. grafikoan Randstat txostenean bildurik dauden 10 herrialdeetarako datuak ematen ditugu. Grafiko horretan ikus daiteke, aspaldiko 1993 urterako, lau herrialdeetan langabe guztiek laguntza zutela (Alemaniako emakumezkoek izan ezik): Danimarkan, Irlandan, Belgikan eta Alemanian. Ingalaterrako gizonezkoen % 100ek ere babesaren zuten lanik gabe geldituz gero, baina hango emakumezkoen % 60k baizik ez zuen babes hori.

Europar Batasuneko 10 herrialde horien batez bestekoa % 80tik hurbil zegoen gizonezkoen dagokienez, eta ia % 60 zen emakumezkoentzat. Espainiak zuen aldea, gizonezkoen kasuan, 18 ehuneko-puntukoa zen, eta 10ekoa emakumezkoenengan. Urte hartan, Euskal AEn, esan bezala, bakarrik biztanle langabe erdiarengana iristen zen langabezia-aseguraren babesaren.

Batzordeak beste hiru adierazle proposatzen dituela esan behar dugu: lan malguko hitzarmenak dituzten langileen proportzioa, lanpostuen galera balioztatzea, eta toki geografikoz aldatzen diren langileen proportzioa; horiek ez dira agiri honetan sartuko.


6.3 Enplegatuen eta enplegatzailen arteko harremanak: gizarte-elkarriketa.

Enplegu-kalitatea osatzen duten piezetako beste bat laneko klimari loturik dago, gizarte-eragileen arteko harreman-motari edo enpresetako alderdi bakoitzak kudeatze-prozesuan edo jabetzan bertan duen parte-hartzeari.

Gizarte-elkarriketari buruz ikertzeko, funtsezko adierazle bat laneko eta soldatara baldintzak agiri juridiko batean eta modu bateratuan finkatzea lortu duten landunen proportzioa da: hitzarmen kolektiboen estaldura-tasa.

Lehenik eta behin esango dugu, Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioak emandako datuak aintzat hartuz gero, hitzarmen kolektibo batean sarturik dauden langileen proportzioa nabarmen igo dela sei urtean: 1996an % 12 ziren (gutxiegi zenbatu izana ez litzateke baztertu beharko), eta, ordea, 2001ean, sei urteren buruan, % 36.

37. grafikoa. 16 eta 64 urte bitarteko landunen hitzarmen kolektiboen estaldura-tasen bilakaera. Euskal AE. 1996-2001. %.




Iturria: Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa. Geuk landua.

Euskal EAen, aldi horren hasieran 216 hitzarmen zeuden izenpetuta, eta 396 bukaeran. Enpresen gehikuntza ere oso nabarmena da: 11.555 epearen hasieran eta 30.764 bukaeran.

Laneko eta soldatako baldintzen erregulazio handiago horrek (autorregulazioa esan liteke kasu horretan), dudarik gabe, gizarte-eragileen arteko harremanak hobetzera eramaten du, eta, horrez gain, handik sortzen den egonkortasunak berak enplegu-kalitate hobea ekarriko du, bai eta, oro har, zerikusia dutenen bizi-kalitatea hobea ere.

38. grafikoa. Hitzarmen kolektiboen estaldura-tasak, herrialdeka. 2001. %



Iturria: Randstad .Eiro. Collective bargaining coverage and extension procedures.2003. Tasa doitu. (**)2000ko datuak. Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa.


Badirudi adierazle horretarako ere ez daudela neurri batean homologa daitezkeen iturriak, edo, behintzat, definizio homogeneoei jarraitzen dietenak; Euskal AEko eta Espainiako tasen arteko aldea ez dirudi erraz esplika daitekeenik, ia % 70koa baita. Hala eta guztiz ere, esan liteke negozioazio kolektiborako tradizio handiagoa dagoela aztertutako Europako herrialdeetan (% 80ko tasatik hurbil edo gaindituta), Espainiak, Luxenburgok eta Erresuma Batuek osatzen duten taldean izan ezik.

Alderdi negatiboari dagokionez, enpresaburuen eta langileen arteko harremanak une jakin batean eteten direla eta, lan-gatazkengatik galdutako egun-kopurua sartzen da gizarte-elkarritzetari buruzko adierazle-multzoan.


Esan beharra dago estatistikek ez dituztela argi adierazten lan-gatazka kolektiboen jatorrien edo kausen arteko ezberdintasunak; ez dakigu gatazka horiek lantokietan edo ekonomia-sektoreetan sortzen diren (huelga askok hitzarmenen beren hedadura du), edo deialdi zabalagoak diren, sarritan, gizarte-eragileen arteko gatazkek ez ezik, botere publikoekin izandako gatazkek ere sortuak.

Beste arlo batzuetatik datozen datuekin konparatzea ere zaila da.

39. grafikoa Langile bakoitzeko huelgengatik galdutako egunen batez bestekoaren bilakaera, 16 eta 64 urte bitarteko biztanle landunetan. EB-15. 1994-1996. Euskal AE. 1996-2001. Batez bestekoa.



40. grafikoa Huelgengatik galdutako lanegunen bilakaera. Euskal AE. 1996-2001




Iturria: UE-15, Randstad, EFILWC, The Europeanisation of Industrial relations.2002.Euskal AE. Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa. Geuk landua.

39. eta 40. grafikoei begiratuz gero, urtean galdutako egunei dagokienez, asimetria handia dagoela atzeman daiteke. 1997. urtean 453.000 lanegun galdu ziren eta 1999an 659.000; ondorioz, batez beste, 0,62 eta 0,81 egun galdu ziren langileko, hurrenez hurren. Gogoan izan azken urte horretako maiatzaren 21ean huelga orokorra izan zela, 35 orduko asteko lanaldiaren alde.

2000. eta 2001. urteetan nabarmen murriztu ziren gatazkak, batez beste 0,26 eta 0,32 egun bakarrik galdu baitzen landun bakoitzeko.

Europar Batasunarekin konpara daitekeen datu bakarra 1996an dugu; urte hartan Europar Batasun osoan ia zortzi milioi egun galdu ziren huelgengatik. Batez bestekoa 0,07 egun langileko izan zen, Euskal AErako kalkulatu zen batez bestekoa baino ehunen bat gutxiago bakarrik.

41. Grafikoa. 16 eta 64 urte bitarteko biztanleen arteko landunek huelgetan parte-hartzearen tasaren bilakaera. Euskal AE. 1996-2001. %.



Iturria: Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa. Geuk landua.

Aurreko adierazleak osatzeko, 16 eta 64 urte bitarteko landun guztien aldean, lan-gatazka kolektiboetan parte hartu zuten langileen proportzioa lortu dugu. Zehaztu beharra dago langile bera behin baino gehiagotan zenbatuta egon litekeela, eta, beraz, ezin izango genuke zuzentasun osoz esan tasa bat denik; hala eta guztiz ere, esanguratsua izan daitekeela iruditzen zaigu, lan -gatazkek –edo lanari eta politikari loturiko gatazkek– pertsonengan eta gizartean duten eragina hobeto ezagutze aldera.

1999an huelgetan parte hartu zuen langile-kopuruak (854.000) urte bereko batez besteko landun-kopurua ere (809.000) gainditzen du. Horrek esan nahi du langile askok huelga batean baino gehiagotan parte hartu zuela.

Hurrengo urtean adierazle hori langileen % 74 da, Egunen proportzioa aurreko urtean baino askoz txikiagoa zen; beraz, kasu horretan langile ezberdin gehiagok parte hartu zuen.

Aztertu diren gainerako urteetan, ez da inoiz % 20 gainditzen.

7. Produkzioa eta produktibitatea.

Enplegu-kalitatea ikertzeko erabiltzen diren adierazleen zirkulua ixteko, lanaren produktibitateari eta enplegatuen bizimodu estandarrari dagozkienak daude. Ez dirudi logikoa lana bere emaitzetatik isolatzeak, herrialde baten ekonomiaren kasuan zein etxeetako edo enpresetako ekonomien kasuan.

Batzordeak honako neurri hauek proposatzen ditu: batez besteko produktibitatea orduko eta langileko; urteko batez besteko produkzioa langileko, eta familiaren bizimodu estandarraren urteko batez bestekoa, enplegu-tasa eta mendekotasun-ratioa kontuan harturik.

Orduko eta langileko kalkulaturiko produktibitateetan jarriko dugu arreta; horretarako, urteko ehuneko-gehikuntzak erabiliko ditugu, eskuragarrienak izaten baitira, eta, horrez gain, jakina, adierazlearen bilakaera balioztatzea ahalbidetzen dute. Hasteko, BPG errearen gehikuntzei begiratuko diegu. Magnitude horrek, hain erabilia eta ezaguna izanik, interes handia du.

7.1 Europar Batasuneko hazkunde ekonomikoa. Inflexio-puntua.


Bigarren milurtekoaren bukaera eta hirugarrenaren hasiera, ekonomiaren aldetik, –bai Europar Batasunarentzat, oro har, bai herrialde guztientzat, banan-banan hartuta– garai ona izan da, kasu guztietan hazkunde positibo handia egon baita.

Hala ere, aztertu diren sei urteetan bi aldi bereiz daitezke argi eta garbi: batetik, milurtekoaren bukaera (Europar Batasunean, oro har, % 3ko gehikuntzak egon ziren), eta, bestetik, milurteko berriaren hasiera (hazten jarraitu zen arren, erritmoa nahikoa moteldu zen –% 1,6 eta % 1,5 2001ean eta 2002an–).

Lehen aldian, Irlandak ia % 11ko hazkunde-tasak izan zituen, eta Europa zaharrean mirari ekonomikoak oraindik posible direla gogorarazten du horrek. Luxenburgok eta Finlandiak ere luze gaintu zuten Europar Batasuneko batez besteko hazkunde.

Herrialde horien tasen antzekoak Euskal AEn egon ziren; urte haietan % 5 eta % 6 bitarte hazi zen. Espainiako ekonomia, Europar Batasuneko batez bestekoaren aldean, puntu bat gaintetik egon zen, eta puntu bat azpitik Euskal AEko ekonomiarekin alderatuta.

42. grafikoa. BPGerrearen urteko hazkundearen ehunekoen bilakaera. herrialdearen arabera. 1997-2002. %



Iturria: European Commission. Employment in Europe 2002(1995ko prezioetako BPG). Eustat. Kontu Ekonomikoak.

2001ean eta 2002an aurreko hazkunde-tasen zuzenketa handi bat hasi zen gertatzen: Euskal AEn % 5,2ko tasa egon zen 2000n, % 2,9koa hurrengoan, eta hamabi hilabete geroago, % 1,7koa izan zen.


Oro har, gauza bera gertatu zen herrialde guztietan, eta ekonomia-zikloetan joera-aldaketa izan zela dirudi. Lisboako Goi-bilerako baikortasuna eta handik sortu ziren helburuen parte handi bat, azken hilabete horietan, zalantzan jartzen zirela dirudi, ekonomia egoera berri hori zela eta.

7.2 Laneko produktibitatearen bilakaera.

Produktibitatearen aldakuntzak azaldu aurretik, interesgarria izan daiteke, gure ustez, lan egindako orduen guztizkoan izan ziren aldaketak balioztatzea, denok ohartzen baikara enplegu-kalitatearen adierazle ona izan litekeela.

Beste kasu batzuetan bezala, parametro hori kalkulatzeko metodoek (bai lan-indarrari buruzko inkesten bidez, bai kontabilitate nazionalaren bidez kalkulaturik) guztizkoetan dibergentzia batzuk sortzen dituzte, eta askotan, analisia argitu baino gehiago, ilundu egiten dute. Zailtasun horiek saihesteko, eta orain arte atal honetan egin dugun bezala, ELGEren estatistiken bidez informazioa eskaintzen zuten herrialdeetarako aldakuntzak emango ditugu.

43. grafikoa. Langileak urteko lan egindako orduen batez bestekoaren aldaketen bilakaera, herrialdeen arabera. 1996-2000. %



Iturria: ELGE. Employment Outlook.2001. Eustat, BJA

43. grafikoan irudikatzen diren aldakuntzak aztertu eta gero, erraz ondorioztatzen da oso txikiak direla, askotan baztertzekoak, ausazko eragileak izan baitaitezke sortzen dituztenak.


Hori esanda, eta 1997tik 2000ra erreferentziatzat harturik, joera batzuk, bai, atzeman daitezke aukeratutako 12 herrialdeetarako (ez genuen Europar Batasuneko herrialde guztiei buruzko informazioa). Hala bada, Estatu Batuetan (2000n 1877 orduko batez bestekoa egon zen), Kanadan eta Txekiar Errepublikan urteko lan-orduak etengabe gehitu ziren; Suediak ere, 2000ko jaitsiera txiki batengatik ez balitz, talde horretan egon beharko luke.

Alemanian (1480 ordu 2000n), Japonian (1840 ordu 1999an), Frantzian (1562 ordu 1999an) eta Erresuma Batuan (1708 ordu 2000n) alderantzizko joera egon zen.

Espanian, 1997an, eta 1998an batez ere (% 1,2ko gehikuntza izan zen, eta 1833 orduetara iritsi zen), aldakuntza positiboak egon ziren, baina hurrengo bi urteetan zuzendu egin ziren, eta 1997ko ordu-kopurura itzuli zen 2000. urtean (1812).

Euskal AEn, urteko orduak % 1,2 eta % 0,8 gutxitu ziren 1998an eta 1999an, eta 2000n gora egin zuten berriro (+ % 1,3).

44. grafikoa. Urtean lan egindako orduetako produktibitatearen aldakuntzen bilakaera, herrialdeen arabera. 1996-2001. %



Iturria: European Commission. Employment in Europe 2002(1995ko prezioetako BPG). Eustat. Kontu Ekonomikoak.

1996 eta 2000 bitartean, lan egindako orduko kalkulaturiko produktibitateak hazkunde egonkorra izan du Europar Batasunean: ia urte guztietan puntu eta erdi inguru gehitu da, 2000n izan ezik, orduan % 3 bakarrik hazi zen.


Irlanda (berriz ere nabarmentzen da % 6 eta % 7ko gehikuntzan dituelako), Luxenburgo, Finlandia eta Erresuma Batua argi eta garbi aldentzen dira Europar Batasuneko batez bestekotik, bai eta Alemania (1998an eta 1999an izan ezik) eta Grezia ere.

Espainia Europar Batasuneko batez bestekoaren azpitik gelditu zen, 1996an eta 1999an izan ezik, % 1,5eko eta % 1,5ko hazkundeak egon baitziren urte haietan.

Euskal AEn, informazioa duten lau urteetan, batez bestekoaren gainetik zeuden hazkundeak gertatu ziren 1997an eta 1998an (% 2,3 eta % 1,8), eta hurrengo urtean % 1,3ra jaitsi ziren, eta, azkenik, - % 0,9ko galera izan zuten 2000n.

Azpimarratu behar dugu kasu guztietan, salbuespenik gabe, produktibitatea orduko gutxitu egiten dela 2001ean.

45. grafikoa Pertsona bakoitzak lan egindako orduetako produktibitatearen aldakuntzen bilakaera, herrialdeen arabera. 1996-2001. %



Iturria: European Commission. Employment in Europe 2002(1995ko prezioetako BPG). Eustat. Kontu Ekonomikoak.

Urteko eta langileko kalkulaturiko produktibitateari dagokionez, honako herrialde hauek egon ziren argi batez bestekoaren gainetik, aldi guztian: Irlanda (% 5 inguruko aldakuntza positiboak), Grezia (% 4 ingurukoak), Danimarka eta Austria (% 2 ingurukoak), Erresuma Batua eta Portugal (% 1,5 eta % 2 bitartean), eta Alemania (% 1 inguru):

Belgikan, Frantzia, Finlandian eta Suedian ere hazkunde nabarmenak gertatu ziren, baina azken urtean, 2001ean, hazkunde negatiboak izan ziren.

Espainiako hazkunde-tasak puntu erditik puntu batera bitartekoak izan ziren, baina azken urtean, ordea, gutxitzeko joera orokorrari jarraitu zioten.

Azkenik, Euskal AEn bilakaera positibo nabarmena izan zen 1997an (+ % 2,8), gero urteko hazkunde-tasen batez bestekoak puntu erditik hurbil egonkortu ziren, eta, azkenik, 2001ean bere horretan gelditu zen.

Ondorioak

Bigarren milurtekoaren bukaeran egon zen baikortasun ekonomikoaren giroan, Europako Gizarte Eredua –II. Mundu Gerra ekarri zuen gizarteko eta politikako hausturaren ondoren garatua– bizkortzeko saio batean, Europako erakundeek politika eta helburu handiak planteatu zituzten ekonomiaren eta gizartearen arloetan. Ez hori bakarrik, betetzeko edo garatzeko adierazle batzuei loturiko jarraibide zehatzen bidez, proposamen horiek betetzen eta betearazten ere saiatu ziren.

Lisboan (2000) planteatu zen enplegu osoa lortzeko helburuari langileek historian zehar aldarrikatu duten beste kontzeptu bat gehitzen zaio: enplegu-kalitatea. Enplegu gehiago eta hobe, ustez garatzeko ahalmen handia duen lan-merkatu batean, Europakoan.

Batzordeak, enpleguari eta gizarte-politikei buruz, Europako Kontseiluari, Europako Legebiltzarrari, eta Ekonomia eta Gizarte Kontseiluari eta Eskualdeen Kontseiluari emandako komunikazioak (2001eko ekainaren 20) kalitatea ikertzeko eremua zehatzen du, eta horretarako abiapuntu bihurtzen da.

Ínoiz definitu gabeko *enplegu-kalitatea* kontzeptuan, erakunde politikoen arabera, honako arlo hauek sartuko lirateke: enpleguari, berez, eta haren inguru hurbilari dagozkion arloak (lan-merkatua eta ekonomia); eskubideei dagozkien arloak (emakumeen, adinekoen, atzerritarren eta abarren eskubideak), eta familiarekiko orekari dagozkionak.

Lan-eskema horrek –guztientzat beti begiratzeko atsegina ez den ispilua izateaz gain– politika eta helburu zehatzak xedatzeko aukera ematen du, gure inguruko herrialde eta erkidegoekin batera. Helburu horiek lortzeko erritmoa eta neurriak botere bakoitzaren esku gelditzen dira.

Euskal EAtik, programa propioak garatzea ahalbidetzen duen politika- eta erakunde-eremua denez gero, interesgarria da enplegu-kalitatearen arloan ere gainerako europarregiana hurbiltzea, analisisan, lehenik, eta politketan, ondoren.

Estatistikatik, analisiak eta proposaturiko politiken segimendua egiteko behar diren ezagutza-tresnak garatzen saiatzen gara.

Horri dagokionez, agiri hau abiapuntua baizik ez da, ikerketa-arlo berri bat aztertzeko eta eskura dagoen informazio sakabanatua sistematizatzeko lehen saio bat. Lortu diren emaitzak, beraz, lehen hurbilketa bat dira.

Lan-merkaturako sarbideari dagokionez, ikusi dugu generoen arteko aldeak bere horretan irauten duela ia, nahiz eta emakumea gehiago sartzen den lan-merkatuan: 1994an 29 ehuneko-puntuko aldea zegoen gizonezkoen eta emakumezkoen okupazio-tasen artean, eta 2002an 26 puntu. Langabezia-tasetan bakarrik da nabarmenagoa aldeak murriztu direla: 1997an 13 puntukoa zen, eta 2001ean, aldiz, 8koa. Dena den, Europar Batasuneko batez bestekora dagoen aldea oso nabaria da bi alderdi horietan.

Bai Espainiako autonomia erkidegoetan, bai Europar Batasuneko herrialdeetan, generoen arteko soldata-ezberdintasunak handitzeko joera arriskutsua dagoela ikusi

dugu. Hori, ziur aski, ekonomian hirugarren sektorea nagusitzeari eta hazkunderari berari lotuta dago.

Itzal horien ondoan, argi batzuk aurkitu ditugu: badirudi adineko langileak lan-merkatutik egozteko prozesuak moteldu egin direla. 55 eta 64 bitarteko pertsonen okupazio-tasa % 28koa zen 1994an eta 2002an, ordea, % 40koa.

Lan-merkaturako zein merkatuaren beraren barruko mugimenduei dagokienez, fluxuen analisisien bidez, ikusi dugu okupazioa handitzeak langabezian egoten den aldia murriztu duela: 1997 langabezian zeuden % 56,3k egoera horretan jarraitu zuten 1998an; 2001tik 2002ra, aldiz, ehuneko hori % 35era jaitsi zen.

Aldaketa horiek hain positiboak ez diren beste batzuk ekarri dituzte: aipaturiko lehen aldian, erdia baino apur bat gehiago aldi baterako kontratatuta bazeuden (% 54,3), 2001etik 2002ra ehuneko hori % 65,1era igo zen, eta behin-behinekotasuna egonkortzeko joera agertu zen. Horrek ez du adierazten egoera horretan dauden landunak gehitu direnik, azken lauzpabost urteetan haien kopurua % 23aren inguruan egonkortu da eta.

Lana eta familia nola bateratzen diren (enplegu-kalitatearen ardatz nagusietako bat) aztertzeko erabiliriko adierazleak ere ez dira positiboak: lan malguak edo lanaldi laburrekoak, berez gutxi izanik, gutxiagotzeko joera du, eta are gehiago emakumeen artean: 16 urte baino gehiagokoen artean, 1999an, % 24k lan egiten zuten hogeita hamar ordu baino gutxiagoko kontratuekin, eta 2002an % 20k; Europan, ordea, % 33k zuten kontratu-mota hori.

Lan-merkatuan sartzean amatasunagatik edo aitatasunagatik diskriminaziorik ez egoteak Europako gainerako herrialdeetatik bereizten gaitu. Horrek esan nahi du berebiziko garrantzia duen aldi hori enplegua lortu arte atzeratzen dela ia beti. Litekeena da gure erkidegoan etxebizitza eta enplegua izatea aberastasunaren benetako iturri. Horregatik, hori horrela balitz, jaiotzen aldeko politika asko zalantzan jarri behar litzateke.

Funtsezko beste esparrura hurbilduz gero, lanaren eta langileen ezaugarrien ingurunera, hain zuzen, okupazio-tasak prestakuntza hobea dutenen artean handiagoak direla ikusiko dugu: % 81,3 unibertsitate-ikasketak dituztenak, % 74 bigarren mailako ikasketak edo lanbide-ikasketak dituztenak eta % 48 lehen mailako ikasketak edo hori baino gutxiago dutenak. Denboran zehar aztertuta, 1998tik 2002ra tasa horrek batez ere bigarren mailako ikasketak dituztenei esker gora egiten duela ikusiko dugu. Hazkunde hori lanbide-heziketako teknikari gehiago eskatzearen ondorio izango da ziur asko. Unibertsitate-ikasketak dituzten adineko pertsonen tasen hobekuntza ere nabarmena da. Hala ere, gure tasak Europakoekin alderatzen baditugu, prestakuntza gehiago edo hobea duten giza baliabideen aprobetxamendu desegokia nabarmena da oraindik.

Gizarte eta ekonomia dinamiko bat izateko beste alderdi garrantzitsu bat hobekuntza-ikastaroak eta beren lanarekin loturiko ikastaroak egiten dituzten langile-kopurua da. Euskal Herriko tasaren % 6ak Europako batezbestekoarekin puntu bateko aldea besterik ez badu ere, langile ingeles edo finlandiarren % 20ri baizik ez zaio hurbiltzen.

Lanaren berezko kalitatea deiturikoak ere, lanaren alderdi subjektiboetan arreta jartzen duenak, ez du etorkizun itxaropentsurik. autonomia-erkidegoka, lanarekin pozik ez

dauden langileei dagokienez eta estresaturik daudenei dagokienez, gure erkidegoa laugarren postuan dago. Egindako lanari erakargarritasunik aurkitzen ez diotenen artean, seigarren postuan gaude.

1996tik 2002ra enplegua % 23 hazi zen eta istripu kopurua % 40. Europar Batasunean 100.000 landuneko 4.000 istripu izaten dira batez beste eta Euskal AEan, aldiz, 5.700. Tasa hori Espainiakoak bakarrik gainditzen du Europar Batasunean: 1999an 7.000 istripu izan ziren.

Gaixotasun profesionalen tasa ere nabarmen hazi da: 1996an 100.000 landuneko 1ekoa zen eta 2002an 2,7koa.

Estaldura-tasarekin neurtutako langabeziaren babesa azken urteetan indartu bada ere eta langabeen % 45ek eskuratu badute ere, Europakoetatik oso urrun dago oraindik ere (emakumeentzat % 60 eta gizonentzat % 80).

Badirudi hitzarmen kolektiboen bidez bizitza eta lan-harremanak arautzeak tradizio handiagoa duela Europako beste herrialde batzuetan. Hala ere, azken urteetan gure erkidegoan hazkunde nabarmena izan duela dirudi. 1996an hitzarmena zuten langileak % 12 ziren eta bost urte geroago % 36.

Enplegu-kalitatearen inguruko alderdiekin amaitzeko, azken eremu bat batez ere lanarekin loturiko produktibitatea aztertzeaz arduratzen da.

Gaur egungo lan-merkatua —eta ondorioz, Europakoa— ezin uler daiteke milurtekoaren amaieran izandako BPGaren hazkunde handiak gabe. EBko hazkundearen batez bestekoa % 3koa zen eta Euskal AEkoa, aldiz, % 5 eta % 6koa. 2000 eta 2001ean gehikuntzak zuzentzen hasi ziren: % 2,9koa eta % 1,7koa, hurrenez hurren. Murrizketa horiek ia Europako herrialde guztiei eragiten diete, batzuei nabarmenago gainera.

1997tik 1999ra lan egindako orduko produktibitatea Europako batez bestekoa baino erritmo bizkorragoan hazi zen Euskal AEn. % 2,3, % 1,8 eta % 1,3. Hala ere, 2000. urtean % 0,9ko beherakada izan zuen, Europako beste herrialde batzuetan, hala nola, Suedian, Holandan edo Finlandian 2001. urtean antzematen hasi zirenen parekoa.

Hala eta guztiz ere, pertsonako produktibitatea ez da negatiboa izatera iritsi eta urteko puntu erdi inguruan mantentzen da.

Azterketa egiteko asmorik gabe, baina Europako beste herrialdeen mailara iristeko asmo onaz, herrialde horien ondoan jarri gara. Behin baino gehiagotan nahasteak ekar ditzaketen gaur egungo egoera eta ibili beharreko bidea aurkeztea da helburua.

BIBLIOGRAFIA

- Laneko eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza. Lan-merkatuari buruzko zentsua.
- COMMUNICATION FROM THE COMMISSION TO THE COUNCIL, THE EUROPEAN PARLIAMENT, THE ECONOMIC AND SOCIAL COMMITTEE AND THE COMMITTEE OF THE REGIONS. Social Policy Agenda. BRUSELA, 2000.06.28. COM(2000) 379 FINAL.
- COMMUNICATION FROM THE COMMISSION TO THE COUNCIL, THE EUROPEAN PARLIAMENT, THE ECONOMIC AND SOCIAL COMMITTEE AND THE COMMITTEE OF THE REGIONS. Employment and social policies: a framework for investing in quality. BRUSELA, 2001.06.20. COM(2001)313 FINAL.
<http://europa.eu.int/comm/employment_social/news/2001/sep/quality_en.pdf>
- Europar Batasuneko aldizkari ofiziala. 05.08.2003.L 197/17. Kide diren Estatuen enplegu-politiken jarraibideak. (2003/578/CE).
- Employment Committee. Indicators for monitoring the Employment Guidelines 2002. Compendium-JER2002.
- European Commission, Employment in Europe 2002.
- European Foundation for the Improvement of Living and Working Conditions. Quality of work and employment in Europe. Issues and Challenges. Office for Official Publications of the European Communities. 2002.
- European Statistics on Accidents at Work.
- EUROSTAT, Structural Indicators'
<<http://europa.eu.int/comm/eurostat/Public/datashop/print-product/EN?catalogue=Eurostat&product=1-structur-EN&mode=download#Emploi>> [2003-11-1]
- EUSTAT, Biztanleria Jardueraren arabera sailkatzeko Inkesta. BJA
- EUSTAT, Euskal Aeko kontu ekonomikoak.
<<http://europa.eu.int/comm/eurostat/Public/datashop/print-product/EN?catalogue=Eurostat&product=1-structur-EN&mode=download#Emploi>> [2003-11-1]
- IEL, Lan Arloko Ikerketen Institutua. ESADE, 2003. Laneko kalitateari buruzko RANDSTAD txostena.
<http://www.randstad.es/documents/Prensa/Calidad_en_el_trabajo.pdf> [2003-11-1]
- INE, Europar Batasuneko Etxe Panela. 2000

- INE. Biztanleria Jardueraren Arabera Sailkatzeko Inkesta. Biztanleria Aktiboaren Inkesta.
- Laneko eta Gizarte Gaietako Ministerioa. Laneko kalitateari buruzko inkesta 2002
- OCDE Employment Outlook 2001. 2002ko uztaila
- ELGE. Labour Force Statistics. 1980-2000.
- OSALAN, Eusko Jaurlaritza.